
JARDUERAREN MEMORIA

20 19

KULTURA SAILBURUORDETZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

JARDUERAREN MEMORIA

20 19

KULTURA
SAILBURUORDETZA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

Argitaraldia: 1.a, 2020ko urria · **Ale-kopurua:** 60 ale · © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Kultura Sailburuordetza) · **Internet:** euskadi.eus · **Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco (Donostia-San Sebastian kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) · **Diseinua eta maketazioa:** TheNiu · **Inprimatzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua · **Lege Gordailua:** LG G 00559-2020

Oharra: lan honen erregistro bibliografiko bat Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan kontsulta daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>.

Aurkibidea

1.	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUAREN AURKEZPENA	6. or.	4.	EGITASMO NAGUSIAK	16. or.
2.	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA	7. or.	4.1	EUSKAL ONDAREAREN LEGEA, 6/2019, maiatzaren 9koa	
3.	KULTURA SAILBURUORDETZA	8. or.	4.2.	KULTURA PLANA 2019-2022	
3.1.	EGITURA		4.3.	SORKUNTZA ETA EKOIZPENA	
3.1.1.	Kultura Sailburuordetza		4.4.	KULTUR ESKAINTZA	
3.1.2.	Kultura Ondarearen Zuzendaritza		4.5.	MEMORIA BIZIA	
3.1.2.1.	Euskal Kultura Ondarearen Zentroa		4.6.	GOBERNANTZA	
3.1.2.2.	Museoen Zentroa		4.7.	KONPROMISOAK, EKIMENAK, EKINTZAK	
3.1.2.3.	Artxibo eta Ondare Zerbitzua		5.	EUSKARA ETA GENERO BERDINTASUNA	28. or.
3.1.2.4.	Liburutegi Zerbitzua		5.1.	EUSKARA	
3.1.2.5.	Jabetza Intelektuala Erregistroa eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoa		5.2.	GENERO BERDINTASUNA	
3.1.3.	Kultura Sustatzeko Zuzendaritza		6.	ERANSKINAK	30. or.
3.1.3.1.	Kultura Sustatzeko Zerbitzua		6.1.	DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAK	
3.1.3.2.	Kultura eta Sormen Industrietako Programa		6.1.1.	Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren diru-laguntza deialdiak	
3.1.3.3.	Kulturaren Euskal Behatokia		6.1.2.	Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren diru-laguntza deialdiak	
3.1.4.	Organo kolegiatuak eta beste administrazio atalak		6.2.	DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK	
3.2.	PATRONATUAK, ERAKUNDE AUTONOMO ZEIN PUBLIKOAK ETA SOZIEKATE PUBLIKOAK		6.2.1.	Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emandako diru-laguntza izendunak	
3.2.1.	Patronatuak		6.2.2.	Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak emandako diru-laguntza izendunak	
3.2.2.	Erakunde autonomo zein publikoak eta sozietate publikoak		6.3.	SARIAK	
3.3.	AURREKONTUA		6.3.1.	Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emandako sariak	
			6.3.2.	Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak emandako sariak	

1/

Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren Aurkezpena

Bingen Zupiria Gorostidi

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

Euskal kulturaren errealitateaz hitz egiteko orduan maiz erabiltzen dugu ekosistema hitza. Gero eta ohikoagoa bilakatzen ari da han eta hemen, eta ondo islatzen du gure kulturaren izaera. Gure kultur sistema osatzen duten elementuak sakabanatuta dauden arren, guztiak konektatuta behar ditugu. Elkarren osagarri dira eta denak dira beharrezko ekosistema hori bizigai gerta dadin.

Ekosistema horren baitan badaude hiru osagai nagusi ezinbestekoak direnak gure kultura bizirik eta sendo mantentzeko: sortzaileak, publikoa eta erakundeak. Sortzaileen lan, talentu eta ahaleginik gabe ez legoke euskal kulturarik. Haiek dira euskal kulturaren protagonista nagusiak, eta beraiek ekarri dute euskal kultura azken urteotan bizi izan duen berpizkunde-aldira. Era berean, euskal gizartean baditugu milaka lagun interes handiz jarraitzen dutenak euskal sorkuntza eta berau kontsumitu eta gozatzen dutenak. Interesaz gain, konpromiso handia erakusten dute, eta ez genuke bigarren oinarri honen garrantzia gutxietsi beharko. Azkenik, ekosistema horrek funtzionatu dezan, ezinbestekoa dugu euskal erakundeen babesa eta hauspoa.

Eskuartearen duzun dokumentuaren bidez, hain zuzen ere, hirugarren zutabe hori zertan den azaldu nahi dugu, Eusko Jaurlaritzari dagokionez. Kasu honetan, 2019. urtean abian jarritako ekimen eta jarduera guztiak bildu eta azaldu nahi ditugu. Xehetasun handiz eta gardentasun osoz. Lehen pauso bat da, eta helburua da ariketa hau urtero-urtero errepikatzea.

Gardentasunaren aldeko apustu bat da, uste baitugu herritarrek politika publikoak zehatz eta mehatz ezagutzeko eskubidea dutela, kasu honetan kulturari dagozkionak. Uste dugu erakundearen ardura ere badela azaltzea zer egiten den, nola eta norekin. Horrekin batera, garrantzitsua da herritarren errekurtso ekonomikoekin egiten den ahaleginaren berri ematea, gizartea bera erakunde publikoen Administrazio Kontseilua bailitzan.

Bistan denez, dokumentu mardula atera da. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Saitetik bertatik zuzen-zuzen sustatutako jarduerak ez ezik, diruz lagundutako guztiak jaso dira. Sortzaileen lanaren babesetik hasi eta ondarearen zaintzaraino. Ikusgarritasun politiketatik museoen

sustapeneraino. Gure kultur ekosisteman hain garrantzitsua den oinarri publikoa zertan den hobeto ezagutzeko baliagarria izatea nahi genuke, guztion ekarpenari esker posible da eta.

Babes publiko hori ezinbestekoa izan da azken hamarkadetan, eta are garrantzi handiagoa hartuko du datozen urteotan. Izan ere, 2019. urtearen atzera begirakoa egiteko unean eztanda egin du sekula imajinatuko ez genukeen egoera batek. Covid 19aren pandemiak samina eta heriotza zabaldu du gure herrian zein mundu zabalean. Eta une honetan aurreikusten zailak diren ondorioak utziko ditu, maila guztietan. Egoera berri honek hankaz gora jarri du kulturaren mundua, baina, era berean, erakutsi digu gure gizarteak behar-beharrezkoak dituela kultur adierazpenak.

Seguruena urteak beharko dira krisiaren aurreko egoerara itzultzeko, eta badakigu 2020. urtea eta agian 2021a ere zeharo ezberdinak izango direla. Azken hamarkadetak eskarmentuak, halere, erakutsi digu zeintzuk diren ondo zaindu beharreko hiru oinarriak gure kultura berpiztuko badugu.

2/

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailen berrantolaketa jasotzen zuen 2016ko azaroaren 26ko 24/2016 Dekretua oinarri hartuta, **2017ko 82/2017 Dekretuak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala finkatu zuen.**

24/2016 Dekretuak honako egiteko eta **jardun-arloak** esleitzen dizkio: hizkuntza-politika garatzea, euskara sustatzea, ondare historiko-artistikoa kudeatu eta babestea, arte eta kultura jarduerak eta horien zabalkundea, kirolaren arlokoak kudeatzea; komunikabide sozialei dagokionez, irratien emakida eta frekuentzien esleipena; sailari atxikitutako erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea eta baita legeek eta arautegiek ematen dizkioten beste hainbat ahalmen ere.

Betekizun horiei erantzun ahal izateko, 82/2017 Dekretuak zehazten du Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren **egitura** honako hau izango dela: Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua (horren menpean izango dira Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza, Zerbitzu Zuzendaritza eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza); Kultura Sailburuordetza (bere baitan, Kultura Ondarearen Zuzendaritza eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritza) eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza eta Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza bere gain izango dituena).

82/2017 DEKRETUA, apirilaren 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena

1968. 2017-04-21. EHAA 76. zk.



3/

Kultura Sailburuordetza

Kultura Sailburuordetzaren **jardun-arloak** dira, batetik, historia eta arte ondarea, museoak, liburutegiak, artxiboak eta jabetza intelektuala kudeatzea zein babestea eta, bestetik, arte eta kultura jarduerak sustatu eta horien hedapena bultzatzea.

3.1./ EGITURA

Sailburuordetzak bereak dituen egitekoak bete ahal izateko, Kultura sailburuordeak bi zuzendaritza dauzka mendean:

- **Kultura Sailburuordetza**
- **Kultura Ondarearen Zuzendaritza**
- **Kultura Sustatzeko Zuzendaritza**

3.1.1.

Kultura Sailburuordetza

KULTURA SAILBURUORDEA
JOXEAN MUÑOZ OTAEGI

ITZIAR SAGARNA MENDIA
IDAZKARIA

Kultura sailburuordearen **betebeharrak** dira, besteak beste:

Kultur arloko jardun-politikak lantzea eta sailburuari proposatzea. Horietan oinarrituta, plan estrategikoak eta urteko jardun planak landu beharko ditu. Sailburuordetzaren jarduerak programatu, kudeatu eta horien garapena gainbegiratzea sailburuordearen egitekoa da, halaber. Bere eskumenen baitan, azterlanak eta txostenak egitea eta azterlan-txosten horiek aztertzea. Sailburuari asistentzia teknikoa ematea eta xedapenatarako proiektuak proposatzea.

Sailburuordetzari dagozkion jardun-arloetan Sailburuordetzaren mendeko zuzendaritzen eta bestelako organo eta administrazio-unitateen jarduerak zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea, horiek egoki funtziona dezaten

jarraibideak eta zirkularrak emanez; era berean, horien helburuak lortzeko behar diren aldaketak eta garapenak zehaztea, izango duten eragin sozialari so eginez. Sailburuordetzaren zuzendaritzetan eta administrazio-unitateetan oinarritutako antolamendu operatiboa proposatzea, ezarrita dauden antolamendu irizpideekin bat. Kontratazio-organoa izatea. Sailaren eta administrazioaren organoen arteko harreman-organoa izatea dagozkion arloetan. Harremanak izatea Estatuko, autonomia erkidegoetako zein foru aldundietako organoekin eta toki-entitateekin.

Bere eskumeneko arloetan zerbitzu eta lan hizkuntza euskara izan dadila bultzatzea, Gobernu Kontseiluak onartutako Euskararen Agenda Estrategikoaren arabera.



3.1.2.

Kultura Ondarearen Zuzendaritza

KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARIA
MIKEL AIZPURU MURUA

KULTURA ONDAREKO AHOLKULARIA
IMANOL AGOTE ALBERRO

JUAN ANGEL EZPELETA MATEO
ADMINISTRARIA

ITZIAR RUBINA IBAÑEZ DE GARAYO
IDAZKARIA

Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren **jarduna:**

Euskal kultura ondarea zaintzean, aberastean, babestean, zabalitzean eta sustatzean datza, baita museoiei zein liburutegiei loturiko eremuetan ere.

Zuzendaritzako jarduerak programatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea; organo arduradunei planak, jardun-programak eta arau-garapenak proposatzea; esleitutako eremuetan beharrezko diren administrazio-egintzak ematea; mendekoak dituen zerbitzu eta unitateak, hala nola lan-sistemak antolatzea; dagokionean kontratazio-organoa izatea; hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionean, euskara normalizatzeko planaren arabera helburuak finkatu eta horiek lortzeko jarduerak garatu zein ebaluatzea. Zuzendaritzako jardun-eremuetan, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezarri eta horien jarraipena egitea, eta hizkuntza-irizpideak txertatzea administrazio-kontratazioan nahiz diru laguntzetarako deialdietan.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak honako **zerbitzuak** ditu bere egitekoak guztatzeko:

- **Euskal Kultura Ondarearen Zentroa**
- **Museoen Zentroa**
- **Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa, Iargi, eta Euskadiko Artxibo Historikoa**
- **Liburutegi Zerbitzua**
- **Jabetza Intelektualaren Erregistroa eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoa**



3.1.2.1.

Euskal Kultura Ondarearen Zentroa

DONA GIL ABAD
ZERBITZUBURUA

JOSE IGNACIO MARTINEZ DE LUCO
IRAZU
ARKITEKTOA

GORETTI FARIÑAS EGAÑA
ARKITEKTOA

IÑAKI ETXEBESTE GOIKOETXEA
ARKITEKTOA

ITZIAR ECHEVARRIA MARTINEZ
ARKITEKTOA

ARMANDO LLAMOSAS RUBIO
KULTURA ONDAREAREN TEKNIKARIA

TXEMA URIARTE GONZALEZ
KULTURA ONDAREAREN TEKNIKARIA

NATXO RAMIREZ DE LA PISCINA ROJO
KULTURA ONDAREAREN TEKNIKARIA

MAITE IZQUIERDO MARCULETA
KULTURA ONDAREAREN TEKNIKARIA

AMAIA GOIKOETXEA MARQUES
ZABALKUNDE TEKNIKARIA

MERCHE PRIETO HEREÑA
ADMINISTRARIA

MARTA MENENDEZ FERNANDEZ
ADMINISTRARIA

RAMON SUINAGA ESPIN
ADMINISTRARIA

Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren
egitekoa da:

Euskal administrazio publikoek euskal kultura-ondarearen alorrean egiten dituzten jarduketak koordinatzea. Kultura-ondasunak aitortzea. Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroa eta Oinarrizko Babesa duten Kultura Ondasunen EAEko Erregistroa kudeatzea.

Euskal kultura-ondarearen inbentarioak egin eta eguneratzea, beharrezkoak diren irizpide tekniko zein metodologikoak ezarri. Euskal kultura-ondareari eragiten dioten arau eta planen alde aurretiko txostena egitea. Euskal kultura ondarearen balioa nabarmentzeko sustapen-neurri ekonomikoak bultzatzea.

Eroslehentasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea egikaritzea, bai beretzat bai beste erakunde batzuentzat. Euskal kultura-ondarearen zabalkunde egitea. Akordioak eta lankidetzahitzarmenak sustatzea beste autonomia erkidegoekin, Estatuaren Administrazio Orokorrarekin, Europako erakundeekin eta nazioarteko erakundeekin.



3.1.2.2.

Museoen Zentroa

AINHOA BERNABE ARAMBERRI
TEKNIKARIA

AITOR ANTUÑANO ZUBIETE
TEKNIKARIA

Museoen Zentroaren **jarduna**, museo eta bildumen erregistroa kudeatu eta diru-laguntzan bidez horien jarduerak sustatzeaz gain, museo-funtsen dokumentazioa, kudeaketa eta hedapena koordinatzen ditu EMSIME informazio sistemaren bidez. Museoen Zentroaren lan ildoak dira EAEko Museoen Direktorioa osatu eta eguneratzea; Euskadiko museo eta bildumen erregistroa eratzea, "Euskadiko Museoa" edo "Euskadiko Bilduma" gisa, inbentario ofizial bat sortzeko; eta Euskadiko museoaren katalogo kolektiboa elikatzea.



3.1.2.3.

Artxibo eta Ondare Zerbitzua

BORJA AGINAGALDE OLAIZOLA
ZERBITZUBURUA

GUMERSINDA BARBEITO MEIZOSA
ARTXIBATEGI TEKNIKARIA

ITZIAR DE AZUA BREA
ARTXIBATEGI TEKNIKARIA

JOSEBE ALONSO MARIGOMEZ
ARTXIBATEGI TEKNIKARIA

NATXO GARAY HINOJAL
MIKROFILMAZIO TEKNIKARIA

PILI AYASTUY URBINA
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

BINGEN GANA VIDAL
MENPEKOA

Artxibo eta Ondare Zerbitzuaren
programa nagusiak dira:

Euskadiko Artxiboen Sistemaren web-ataria (dokuklik). Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo historiko publiko eta pribatuak eskuragarriak dira atari horretan: XIII. mendetik XX. mendera bitarteko dokumentuen 680.000 deskribapen eta 4 milioi irudi digital biltzen ditu. Horiei 1.500etik 1.900era herrialdeko populazioaren zentsu historikoa gehitu behar zaie, 5,5 milioi erregistro pertsonalek osatua. Euskadiko Memoria Digitala elikatzeke Artxiboko funtsen digitalizazioa, Ondare Dokumentalaren arloan. Administrazio Orokorrari eta Udal Artxiboei dagozkien batzordeak eta lantaldeak eratzea. Toki-administrazioko artxiboen sarea kudeatzen laguntzeko eta artxibo ez-publikoei laguntzeko diru-laguntza programak burutzea. Gainera, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, Artxibo eta Ondare Dokumentalaren Zerbitzuaren bidez, diseinatzen, kudeatzen eta gauzatzen ditu artxibo eta ondare dokumentalaren politikari dagozkion aurrekontuak.



3.1.2.4.

Liburutegi Zerbitzua

FRANCISCA PULGAR VERNALTE
ZERBITZUBURUA

PATRICIA ACEBES HERNANDEZ
LIBURUTEGI TEKNIKARIA

UNAI CUEVAS ARANO
LIBURUTEGI TEKNIKARIA

ESTIBALITZ ZUBIAUR ETCHEBERRY
LIBURUTEGI TEKNIKARIA

MIKEL ARENAZA GOÑI
ADMINISTRARIA

MIRARI IZAGIRRE IBAIBARRIAGA
ADMINISTRARIA**MONIKA LORENZO ECHEVERRI**
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

Liburutegi Zerbitzuari **dagokio** Euskadiko liburutegi publikoen kudeaketa. Bere funtzioen artean dago, esaterako, Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiei aholkularitza teknikoa ematea eta horien planifikazio-, funtzionamendu- eta koordinazio-egitekoak garatu eta gauzatzea, jardun-eredu izango diren irizpide teknikoak eta jarraibideak ezarriz, eta liburutegi horien arteko lankidetzak bultzatzea. Zentzu horretan, ondare bibliografikoaren eta liburutegien arloko beharrianak aztertu eta arauzko neurriak proposatzen ditu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrianak aztertzen ditu. Halaber, zerbitzuaren eginkizuna da erabilera publikoko liburutegietan lan egiten duten pertsonen etengabeko prestakuntza bultzatu eta horien profila definitzea.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea batez ere Euskadiko udal-liburutegiek osatzen dute, nahiz eta zerbitzu horretan integratuta badauden udal-titularitatekoak ez direnak ere (Eusko Jaurlaritzak, Artxibo Historikoa, HABE, Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, Zarauzko Photomuseuma...). Une honetan 205 udalerritan kokatutako 300 liburutegi baino gehiagok osatzen dute.

Gainera, Liburutegi Zerbitzuari dagokio irakurtzeko zaletasuna sustatzeko neurriak diseinatzea.

Eskaintzen dituen **zerbitzuak** dira:

- Katalogo bateratua: liburutegi publiko guztien informazio bibliografikoa duen datu basea, Lege Gordailuko funtsak barne.
<https://www.liburubila.euskadi.eus/>
- Bilgunea (Euskadiko liburutegien katalogo kolektiboa): EAEko liburutegi publiko zein pribatuetako funtsak biltzen ditu (foru aldundietakoak, espezializatuak, unibertsitatetakoak eta abar).
http://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/bilgunea/O9460/ID6a1bfe18?ACC=101

- Liburuklik: euskal ondare bibliografikoaren kontserbazioa bermatzen duen plataforma digitala da, ondare horren zabalkundea zein irisgarritasuna errazten dituena.
<http://www.liburuklik.euskadi.eus/>
- eLiburutegia: Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen plataforma bat da Interneten bidez eduki digitalen irakurketa errazten duena. Irakurketa hori streaming bidez, ordenagailuaren bitartez edo gailu mugikorrek direla medio burutu daiteke.
<http://www.eliburutegia.euskadi.eus/>



3.1.2.5.

Jabetza Intelektualaren Erregistroa eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoa

JUAN CARLOS SOTO PEREZ
ZERBITZUBURUA

MIKEL CARRILLO DE LA PEÑA
ABOKATUA

ANDONI TIRADO OLEAGAGOITIA
ABOKATUA

PAUL ESNAOLA SAN SEBASTIAN
ABOKATUA

GLORIA CALVO POZA
ADMINISTRARIA

Jabetza Intelektualaren Erregistroari eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoari honakoa **dagokie**:

Inskripzioa eta idazpena egiteko eskaerak izapidetu eta ebaztea, eta, behar izanez gero, inskripzioak indargabetu eta egitea. Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatuta dauden eskubide, egintza eta kontratuak ziurtatzea eta publikotasuna ematea. Gordailuko dokumentu eta materialak artxibatu eta zaintzea. Jabetza Intelektualaren Erregistroa kudeatzeko behar diren jardunak, baita indarreko ordenamendu juridikoak esleitzen dizkionak ere. Beren kontura edo

inoren kontura ustiatze-eskubideak edo ondarearen arloko beste batzuk kudeatu nahi dituzten erakunde edo elkartei baimena ematea eta indargabetzea: betiere jabetza intelektualaren eskubideen autore batzuen edo beste titular batzuen kontura eta interesen alde. Erakunde horien estatutuak eta horien aldaketak onartzea eta guztiek indarreko araudian ezarrita dauden baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela zaintzea eta horiek kontrolatzea. Bitartekaritza eta arbitrajea dagokion eremuan. Kultura Ondarearen Zuzendaritzari aholkularitza juridikoa ematea.



3.1.3.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

KULTURA SUSTATZEKO ZUZENDARIA
AITZIBER ATORRASAGASTI CALCEDO

KULTUR ETA SORTZE INDUSTRIETAKO AHOAKULARIA
IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE

EDURNE LASKIBAR JAURRIETA
ADMINISTRARIA

EDURNE OYANGUREN BENGOA
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

AMAIA ARNORIAGA MUJIKI
IDAZKARIA

Kultura Sustatzeko Zuzendariaren **egitekoak**:

Zuzendaritzako jarduerak programatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea; organo arduradunei planak, jardun programak eta arau garapenak proposatzea; esleitutako eremuetan beharrezko diren administrazio egintzak ematea; mendeak dituen zerbitzu eta unitateak, hala nola lan sistemak antolatzea; dagokionean kontratazio organoa izatea; hizkuntza ofizialen erabilerrari dagokionean, euskara normalizatzeko planaren arabera helburuak finkatu eta horiek lortzeko jarduerak garatu zein ebaluatzea, Zuzendaritzako jardun eremuetan, hizkuntza ofizialak

erabiltzeko irizpideak ezarri eta horien jarraipena egitea, eta hizkuntza irizpideak txertatzea administrazio kontratazioan nahiz diru-laguntzatarako deialdietan.

Gure herrialdeko kultura eta arte adierazpide ezberdinetan dauden beharrianak aztertzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan arlo horietan egiten diren jarduerak bultzatu, sendotu eta zabaltzeko administrazio neurriak hartzea. Sailburuordetzaren eremuan, egokitzen diren azterketak eta ikerketak dokumentatu, egin eta zabaltzea. Erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatzeko formulak bilatzea eta jardun publikoa planifikatzea. Aipatutako eremuetan kultura kontserbatzeaz, sortzeaz eta zabaltzeaz arduratzea. Euskadiko kultura industriak garatzen laguntzea. Euskal Autonomia Erkidegoaren eta euskal kultura eremuko beste lurraldeen arteko kultura harremanak sustatzea. Etxepare Euskal Institutuarekin elkarlanean jardutea euskal kulturaren sorkuntza kanpoan zabaltzeko neurriak aztertzea eta proposatzeko. Kulturaren Euskal Behatokia zuzendu eta kudeatzea, Euskal Autonomi Erkidegoko kulturaren alorrean informazio, dokumentazio eta ikerketa zentroa den aldetik.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak honako **zerbitzuak** ditu bere jardura gauzatzeko:

- **Kultura Sustatzeko Zerbitzua**
- **Kultura eta Sormen Industrietako Programa**
- **Kulturaren Euskal Behatokia**



3.1.3.1

Kultura Sustatzeko Zerbitzua

ARTURO GARCIA FIEL
ZERBITZUBURUA

JOSE LUIS IBARZABAL EGUIBAR
TEKNIKARIA

MARIJE CAMBRA CONTIN
TEKNIKARIA

IMANOL ARANA ARIZ
TEKNIKARIA

MARTA MERINO ORTIZ DE LANDALUCE
TEKNIKARIA

MANU GALARRAGA IZAGUIRRE
TEKNIKARIA

RAFA ELIZONDO SAIZ
TEKNIKARIA

LOURDES ARANGUREN SUDUPE
TEKNIKARIA

Kultura Sustatzeko Zerbitzuaren **zeregina** da gure herrialdeko kultura eta arte adierazpide ezberdinen (musika, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak, arte plastikoak, literatura argitalpena, etab.) sorkuntza, ekoizpena eta zabalkundeak sustatzea, eragileen prestakuntza eta profesionalizazioa piztea, eta herritarrentzako kalitatezko kultur eskaintza bermatzea.

3.1.3.2.

Kultura eta Sormen Industrietako Programa

JOSEAN URDANGARIN ARRIZABALAGA
ZERBITZUBURUA

FAUSTINO KANALAETXEBARRIA ZAMORA
TEKNIKARIA

Kultura eta Sormen Industrietako Programaren **egitasmoa** kultura eta sormen industriak sustatzera bideratutako hainbat proiektu garatzea da, orain arte kulturaren bazterretan egon diren diziplinak aintzat hartuz. KSI Berritzaile da ildo horretako proiektu nagusietako bat.

Kultura eta sormen industriak era azpimarragarri garatzen ari dira Europan eta eragin handia dute ekonomiaren garapenean eta hirien suspertzean. Euskadiren kasuan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2020 Planean sartutako RIS3 (Regional Innovation Strategy for Smart Specialization) izeneko Europako berrikuntza-estrategia berriaren barruan, Euskadin espezializazio adimendunaren lehentasun estrategikoak identifikatu dira, eta horien artean dago kultura eta sormen industrien arloa.



3.1.3.3.

Kulturaren Euskal Behatokia

MIKEL ETXEBERRIA AGIRRESAROBÉ
ZERBITZUBURUA

AITOR PEREZ SALTERAIN
TEKNIKARIA

ITZIAR REDONDO DOMINGUEZ
TEKNIKARIA

Kulturaren Euskal Behatokiaren **funtzioak** dira:

Kulturari buruzko informazioa ordenatu, balioztatu eta sortzea. Euskal kulturaren egoera, bere azpiko sektoreena eta gizartearen eskakizunak aztertzea. Kulturarekin lotutako alderdi orokorrak, sektorialak edo lurraldearen arabekoak aztertzea. Horretaz gain, euskal kultura-sistemaren I+G+b lerroak formulatu eta egokituz. Behatokiak erakundeei, kultura sektoreei, zientzia-komunitateari eta hiritarrei orokorrean, informazio baliozgarria eskainiko die, besteak beste, publikazioak, ikerketa estatistikoak, lan taldeen antolakuntza, jardunaldiak eta abar erabiliz.



3.1.4.

Organo Kolegiatuak eta Beste Administrazio Atalak

Kultura Sailburuordetzak honako organo kolegiatu eta administrazio ataletan esku hartzen du:

Kulturaren Euskal Kontseilua

Kulturaren Euskal Kontseiluak (KEK), 2000. urtean sortu zenetik, euskal kulturako eragile publiko eta pribatuen topaleku bihurtu nahi izan du. Bere helburu nagusia lankidetzaz bultzatzea eta kultur eremu euskaldun bat egituratzea da, gero eta globalizatuagoa den ingurunean. Helburu hurbilekoena koordinazioa sustatzea da, hiru norabidetan: koordinazio bertikala kultur gaietan eskudun diren hiru erakunde mailetako organoen artean (Jauriaritza, aldundiak eta udalak); koordinazio horizontala kultur jardueran gehien eragiten duten erakunde-esparruekin nahiz Nafarroa eta Iparraldeko erakunde publiko eta pribatuekin; eta, azkenik, koordinazioa hainbat kultur sektoretako gizarte eragileekin.



Euskal Ikus-Entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordea (EIEB)



Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordea



Euskadiko Arkeologia Ondarearen Aholku Batzordea



Euskadiko Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseilua



Dokumentazioa Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordea



Euskadiko Museoen Aholku Batzordea



Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea



3.2./

PATRONATUAK, ERAKUNDE AUTONOMOAK, ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

3.2.1.

Patronatuak

Kultura Sailburuordetzak kultur arloko honako fundazio zein erakundeen patronatueta du ordezkaria:

Guggenheim Bilbao Museoa Fundazioa



Bilboko Arte Ederren Museoren Fundazioa



Artium, Arte Garaikidearen Euskal Zentro - Museoaren Fundazioa



Tabakalera, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa SA



Cristóbal Balenciaga Museoaren Fundazioa



Donostiako Nazioarteko Zinemaldia SA



Euskadiko Orkestra SA



Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa



Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboaren Fundazioa



Euskadiko Filmtategia Fundazioa



Ekain Fundazioa



Añanako Gatz Harana Fundazioa



Donostiako Musika Hamabostaldia SA



Miramar Jauregia Partzuergoa



Joxe Miguel de Barandiaran Fundazioa



Berroeta Aldamar SL



Mundubira 500: Elkano Fundazioa



Espainiako Liburutegi Nazionaleko Errege Patronatua



3.2.2.

Erakunde Autonomoak, Erakunde Publikoak eta Sozietate Publikoak

Kultura Sailburuordetzaren egituraren baitan badira, halaber, erakunde autonomo edo publiko nahiz sozietate publiko izaera duten erakundeak. Horiek dira:

Etxepare Euskal Institutua

zuzenbide pribatuko erakunde publiko honen xedea da euskara, euskal kultura eta euskal sortzaileen lana mundu osoan zehar zabaltzea.



Euskadiko Orkestra sozietate publiko honen helburua da musika ondarea, bereziki euskal musika ondarea gorde eta zabaltzea, eta baita sortzaile zein interprete berrien lana sustatzea ere.



Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioak Euskal Herrian jaio edo bizi diren instrumentista gazteei orkestra musika profesionalerako prestakuntza bidean laguntzen die. 2019an eredu aldaketa egin da eta lan plan berri bat garatzen joango da.



3.3.

AURREKONTUA

Kultura Sailburuordetzaren 2019ko aurrekontuaren gauzatzearen xehetasuna (2018ko aurrekontu luzapena).

KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARITZA

19.496.021,06 €

(langile-gasturik gabe)

- langile-gastuak: 2.096.515,52 €

Ondare historiko artistikoaren zerbitzu orokorrak:

740.731,91 €

- funtzionamendu gastuak: 543.605,91 €
- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 197.126,00 €

Euskal Kultura Ondarearen Zentroa:

2.391.345,45 €

- funtzionamendu gastuak: 351.754,75 €
- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 430.443,76 €
- kapital eragiketeko transferentziak eta diru-laguntzak: 1.609.146,94 €

Museoen Zentroa:

12.298.422,90€

- funtzionamendu gastuak: 22.205,92 €
- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 10.874.070,35 €
- kapital eragiketeko transferentziak eta diru-laguntzak: 402.667,00 €
- finantza-aktiboen gehikuntza: 999.479,63 €

Euskadiko Artxibo Historikoa:

1.712.327,96 €

- funtzionamendu gastuak: 766.196,85 €
- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 901.135,18 €
- inbertsio errealak: 44.995,93 €

Liburutegi Zerbitzua:
2.353.192,84 €

- funtzionamendu gastuak: 1.042.028,18 €
- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 291.164,66 €
- kapital eragiketetako transferentziak eta diru-laguntzak: 1.020.000,00 €

**KULTURA SUSTATZEKO
ZUZENDARITZA**

31.952.511,52 € (langile-gasturik gabe)

- langile-gastuak: 1.074.107,63 €

Kultura sustapena:
6.286.418,67 €

- funtzionamendu gastuak: 1.088.862,24 €
- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 5.197.556,43 €

Musika:
10.740.641,40 €

- funtzionamendu gastuak: 150.227,90 €
- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 10.560.413,50 €
- kapital eragiketetako transferentziak eta diru-laguntzak: 30.000,00 €

Arte eszenikoak:
2.778.621,05 €

- funtzionamendu gastuak: 190.111,55 €
- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 2.588.509,50 €

Arte plastikoak eta ikusizkoak:
710.263,40 €

- funtzionamendu gastuak: 20.981,40 €
- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 424.032,00 €
- kapital eragiketetako transferentziak eta diru-laguntzak: 265.250,00 €

Liburua eta literatura:
1.537.423,58 €

- funtzionamendu gastuak: 37.649,58 €
- kapital eragiketetako transferentziak eta diru-laguntzak: 1.499.774,00 €

Ikus-entzunezkoa:
5.414.725,90 €

- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 3.288.500,00 €
- kapital eragiketetako transferentziak eta diru-laguntzak: 2.126.225,90 €

**Kultura eta Sormen Industrien
berrikuntza funtsa:**
1.134.802,59 €

- funtzionamendu gastuak: 160.529,59 €
- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 974.273,00 €

Kulturaren Euskal Behatokia:
295.576,93 €

- funtzionamendu gastuak: 295.576,93 €

Etxepare Euskal Institutua:
3.054.038,00 €

- gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak: 3.049.038,00 €
- kapital eragiketetako transferentziak eta diru-laguntzak: 5.000,00 €

4/

Egitasmo Nagusiak

Kultura gizartearena da, herritarrok egiten dugu kultura. Erakunde publikoen zeregina da kultura sortu, sustatu, zabaldu, babestu edo kontsumitzeko beharrezko baliabideak horien esku jartzea. Azpiegiturak bultzatu eta kulturari diharduten pertsona, kolektibo zein enpresei gure laguntza eskaintzen diegu, horien artean museoak, liburutegiak, orkestrak, jaialdiak, ondarearen babeserako elkarteak eta abar.

Gauzak horrela, hona hemen 2019. urtean Sailburuordetzak sustatuta edo Sailburuordetzaren laguntzaz gauzatu diren egitasmo nagusienetako hainbat.

4.1./ EUSKAL KULTURA ONDAREAREN LEGEA

2359. 2019-05-20. EHAA 93. zk.
6/2019 legea, maiatzaren 9koa,
Euskal Kultura Ondarearena



Euskal Kultura Ondarearen Lege berriaren onarpena mugarrria izan da aurten. Duela hogeita hamar urte idatzitakoa berridatzi eta 1990ean onartu zenean ondare eta kultura kontzeptuak uztartzeagatik lege aitzindari bihurtu zena ordeztu du legeak. Hemendik aurrera euskal kultura ondarearen zaintzarako erreferente nahitaezkoa izango den hori Eusko Legebiltzarreko talde ezberdinen artean oinarritzako akordio zabal bat lortuta onartu zen. 1990. etik hona aldaketa ugari gertatu da ondarea ulertzeko moduan, horien artean ondare immaterialaren inguruan, industria ondarea, alor digitalarekin lotutako aldaketak... edo ondarea eta aisialdia nahiz turismoaren inguruan eratutako loturak; beraz, premiazkoa zen legea eguneratzea. Kultura ondarearen **hiru arlo estrategiko arautzen ditu: ondare higiezin, ondare higigarria** (Euskadiko Museoen zein Euskadiko Liburutegien Legeek eta prestatze prozesuan den Euskadiko Dokumentazio eta Artxibo Legeekin osatua) **eta ondare immateriala.**

Lege berriak argi uzten du **kultura ondarearen zaintzan, babesean eta kudeaketan herri-erakundeetatik harago gizarteak berak, norbanako eta elkarleen bidez, egin dezakeen ekarpena;** alor horretan, erakunde bakoitzaren egitekoa zein den esaten da, hiru erakunde mailen artean zereginak modu orekatuan banatuta (esaterako, Udalen Legeari jarraiki). Gizarteko profesionalen, erakundeen eta Jaurlaritzako sail ezberdinen arteko **koordinazioa bermatzeko bi organo** sortzen ditu legeak: **Euskal Kultura Ondarearen EAEko Kontseilua** eta **Euskal Kultura Ondarearen erakunde arteko organoa.**

Legeak **hiru babes maila** finkatzen ditu: babes **berezia** duten ondasunak, babes **ertaina** dutenak eta **oinarritzko** babesa dutenak.

Kultura ondarea 19 kategoriatan sailkatzen da orain, ondasun higigarri, higiezin eta materiagabeen banatuta; legearen **ezaugarri berritzaileenetakoa da ondare immateriala** legean nola jasotzen den: hizkuntzarekin lotutako adierazpenak, bertsoarritza, musika, dantza, emanaldi tradizionalak, usadio sozialak, gastronomia, kirola, jai ekitaldiak, naturarekin lotutako ezagutzak eta eskulangintza eta industriari buruzko ondasunak biltzen dira horretan, horiek ere gizartearen bilakaera adierazten baitute. Eta horiek bizirik iraun dezaten, erakunde zein kultur eragile orok horiek zaindu eta transmititzea beharrezkoa da, azterketa eta katalogazio lana eginez eta ondare immateriala bizirik gorde eta zabalduko duten eragileen eta erakundeen arteko elkarlana bultzatuz, UNESCOk gomendatutakoaren harira.

Bestalde, gure gizartearen garapenean izandako garrantziari so eginez, legeak toki nabarmena ematen dio **industria ondareari;** garai ezberdinetan sektore horren inguruan sortutako ondasun higiezinak, higigarriak eta immaterialak aintzat hartuta, beharrezkotzat jotzen da horiek katalogatzea.

Azpiratutakoa da, halaber, legean aniztasun funtzionala duten pertsonen artean **kultur ondarearen irisgarritasuna sustatzeko hartutako konpromisoa.**

4.2./ KULTURA PLANA 2019-2022

Kultura Sailburuordetzaren lantaldeak Eusko Jaurlaritzaren kultura politikak modu ordenatuan eta argian jasoko zituen dokumentu baten beharra antzeman duen, bai Jaurlaritza barruko kudeaketarako, baita gizarteari begirako komunikaziorako ere. Jaurlaritzaren egungo eta epe ertaineko kultur politiken koherentzia eta honek Herri mailan duen pisua, bizitasuna eta potentziala islatuko zituen dokumentua behar genuen. Horrela, ia urte beteko lanaren ondoren, 2019ko uztailaren 30ean aurkeztu zen Gobernu Kontseiluan *Kultura Plana 2019-2022*. Ondoren, Kulturaren Euskal Kontseiluan (2019ko iraila) eta Eusko Legebiltzarrean (2019ko urria) ere aurkeztu zen.

Eusko Jaurlaritzak 2022ra arte Kultura arloan izango duen estrategia finkatzen duen dokumentu programatikoa da, konpromiso, lan ildo, ekimen eta ekintzak zehazten dituena. Bertan Jaurlaritzaren "kultur politiken zioa hiru eginkizun nagusitan laburbil daiteke: **Euskal Herria bere kulturaren sortzaile izan dadin ahalbidetzea, euskal gizarteari kultura bizitzeko aukerak eskaintzea, eta euskaldunon memoria kolektiboa gizarteratzea**".

Hiru eginkizun nagusi horien arabera dokumentuak **hiru azpisistematan** antolatzen du Kultura Sailburuordetzaren jarduna:

- **Sorkuntza:** sorkuntza eta ekoizpena ahalbidetzea.
- **Eskaintza:** bertako eta mundu zabaleko kulturaz elikatzeo aukerak gizarte osoari bermatzea eta nazioartean erreferente egingo gaituen kultura eskaintza sendotzea.
- **Memoria bizia:** memoria kolektiboa zaintzea eta gizarteratzea, sorkuntza berrirako emankor gerta dadin.

Hiru azpi-sistema horiek osagarritasuna, elkar eragintza eta oreka bilatu behar dute.

Hiru azpisistema horien arabera antolatu du 2017tik hona Kultura Sailburuordetzak egindako lana.



4.3./ **SORKUNTZA ETA EKOIZPENA**

Euskadiko arteak eta kultura eta sormen industrietan 6.800 pertsonari ematen diete lana eta 762 milioi euroko diru sarrerak sortzen dituzte, Kulturaren Euskal Behatokiak egindako Arteei eta Kultura Industriari buruzko estatistika zein Sormen Industriari buruzko estatistika ikerketen arabera.

Jarraian biltzen dira 2019an Kultura Sailburuordetzak kultur sorkuntzaren eta ekoizpenaren inguruan burututakoak.

Arte eszenikoak. 2018an arte eszenikoetara bideratutako **diru laguntzak** birdefinitu dira antzerkiaren zein dantzaren arloan ikuspegiak batuz. Hartara, 2019an guztira 630.000 €koak izan diren laguntza horiek **prestakuntza, arte eszenikoaren sustapena eta hedapena** hartzen dituzte barne, bost modalitatean banatuta: **antzerki arloko profesionalen prestakuntza, dantza prestakuntza, arte eszenikoak sustatzea, kaleko antzerkia sustatzea eta dantza zirkuitua.** 2019an ere egonaldi-proiektuak sustatzera zuzendutako laguntzak arte eszenikoak sustatzeko beste proiektu mota batzuetara ireki dira (egonaldiak barne).

Bestalde, arte eszenikoaren **ekoizpena** 1.460.000 € bideratu dira, iaz baino 160.000 € gehiago (aurrekontua % 5 igo da). Eta kultur **sormena sustatzeko** laguntzen artean, antzerki testuak eta dantza koreografikoak laguntzen dituztenak daude. Gainera, asko dira diru laguntza izendunen bitartez babestutako proiektu, jaialdi eta ekimenak.

Dantzan Bilaka programaren 13. edizioa izan da 2019an (Tabakaleran). Euskal Herriko koreografia jarduna sustatzeko, horren inguruko esperientziak alderatu, sorkuntza lanak partekatu eta elkarriketarako espazioa da.

Arte plastikoak eta ikusizko arteak

sustatzera 445.000 € bideratu dira 2019an, sorkuntzan, ekoizpenean zein promozioan arreta jarrita. 64 proiektu babestu dira hiru modalitateen bidez: artista plastiko eta ikusizkoei beren **proiektuak sortzen eta ekoizten laguntzeko, arte plastiko eta ikusizkoen esparruko lanak argitaratzeko eta arte plastikoaren arloan zabalkundea bultzatzeko.**

Arte plastiko eta ikusizkoen arloko sortzaileei eta eragileei emandako babesaren barruan daude, halaber, ekoizpena eta zabalkuntza harremanetan jarritan arte garaikidea eta beste jarduerak artistiko eta diskurtsiboak sozializatzea bilatzen duen **Eremuak programa** (2019an Azkuna Zentroan gauzatu zena) eta **Gure Artea Sariak**. Bestalde, aurtan euskal galeriei eta museoiei zuzendutako diru-laguntza bidez eta **Sorgune** (sormena sustatzen duten kultur espazio independenteei laguntzak) eta **Bitartez** (kultur zein gizarte bitartekaritza eta berrikuntza bultzatzen dutenei zuzendua) laguntza ildoen bidez ere lagundu da arte plastiko zein ikusizkoen alorra.

Musikaren sektorea rekin lotutako 87 proiektu diruz lagundu dira 2019an, 660.000 €rekin (aurrekontua % 5,69 igota). 610.000 € **musika jarduerak profesionaletarako** diru laguntzen bidez banatu ziren, **bost modalitateetan** banatuta: **musika partituren edizio inprimatua laguntzea, euskal artista eta taldeen musika proiektu bateratuak babesteko, euskal musika eszenako eragileek bultzatutako enpresa-ekimen musikalak babesteko, zuzeneko musika programatzen duten areto pribatuen lana babesteko Zuzen-Zuzenean** ildo eta, azkenik, 2019an sortutako **Musika zikloak** modalitate berria. Eta 50.000 € bideratu dira musika konposiziorako laguntzetarako.

Musika sektoreko laguntza izendunen artean, diruz lagundu dira **ABAO-OLBE**, musika arloko eragileak biltzen dituen **Euskal Herriko Musika Bulegoa, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarte, Donostiako Orfeoia, Bilboko Koral Elkarte, Tolosako Abesbatza**

Lehiaketa, Euskal Herriko Trikitixa Elkarte eta abar. Hainbat musika-jaialdik ere jaso dute babesa laguntza zuzenen bidez (eta beste zenbaitek jaialdiei bideratutako deialdi irekien bitartez).

Erakunde propioei dagokionez, **Euskadiko Orkestrak** 2019an 7,9 milioi euroko ekarpena jaso du eta **Euskal Herriko Gazte Orkestrak** 200.000 € jaso ditu. Sailaren parte-hartzea duen **Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa**, berriz, 328.000 € jaso zituen.

Zinemagintzari dagokionez, 48 zinema-proiektu lagundu ziren. Guztira, 2.664.000 euro bideratu dira **gidoien idazmena, ikus-entzunezko proiektuen garapena** eta **ikus-entzunezko ekoizpena** babesteko deitutako laguntza irekietara. Gainera, ohi bezala, bestelako bideak ere sustatu dira ikus-entzunezkoa babesteko: Zineuskadiren eta Euskadiko Filmategiaren bitartez emandako diru-laguntza izendunei (**Europa Sortzailea, Zinema Euskaraz, Basque Audiovisual...**), zinema jaialdiak lagunduz (**Donostia Zinemaldia, Zinebi, BBK Mendi Film, FestVal, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea...**) edo EITBk euskal zinemagintzari ematen dion laguntzaren bitartez.

Zineuskadi elkarteak, bere ohiko egitekoak betetzeko jasotzen duen finantzaketaz gain, 80.000 €ko diru laguntza izan du 2019an euskal ikus-entzunezkoen sektoreari nazioartean laguntzeko, *Basque Audiovisual* markaren bidez, eta *Noka Mentoring* proiektua sustatzeko. **Basque Audiovisual** markak euskal ikus-entzunezkoen sektore osoa ordezten du: Zineuskadiren eta Etxepare Euskal Institutuaren lanaren bitartez, nazioarteko merkatu eta jaialdi nagusietara eramaten da euskal ikus-entzunezkoa eta horren bidez, Zineuskadik Berlinale, MAFIZ (Malaga), Marché du Film (Cannes), Mifa (Annecy) eta Zinemaldira eraman du euskal ikus-entzunezkoa. 2019an abiatutako **Noka Mentoring** ekimena *mentoring* eta akonpainamendu pertsonalizatuko programa da: film luzeko hiru proiektu hautatzen dira urtebetez

dozena bat adituren laguntza eta aholkularitza jaso dezaten. Estibaliz Urresola, Itziar Leemans eta Tamara Lucarini zinemagileak aukeratu zituzten lehen ediziorako, 17 ekoizpenen artean.

Kimuak. Kultura Sailburuordetzak, Etxepare Euskal Institutuak eta Euskadiko Filmategiak elkarlanean euskal film laburren sustapena eta banaketa bultzatzeko antolatutako **Kimuak programaren katalogoa** eratu da 2019an ere. Sarta horrek Donostia Zinemaldian ibilbideari ekin eta mundu osoko 170 jaialditan hartu du parte. Zinebi, Berlinale, BAFICI, Palm Springs, Seminci, Hong Kong, Bogoshorts, Black Canvas eta Varsoviako zinemaldietan erakutsi ostean, Tabakalera eta Bilboko Arte Ederren Museoa izan zen ikusgai.

Literatura eta liburugintza arloan 49 proiektu diruz lagundu dira 2019an. Guztira, 811.800 € esleitu dira sei laguntza lerroren bidez: **sormenari** dagokionez, **gazteei zuzendutako euskarazko literatura testuak sortzeko** eta **euskarazko ipuinak eta eleberri laburrak sortzeko**; argitaletxei zuzendutako bi laguntza lerroei esker (euskarazkoa eta espainierazkoa) 477 **argitalpen babestu** dira; eta **irudi sorkuntza** sustatzeko, batetik, **komikiak** eta **eleberri grafikoak** eta, bestetik, **album ilustratuak** lagundu dira diruz.

Diru-laguntza deialdi irekiez gain, literatura eta liburugintza babesteko beste hainbat bide jorratu dira 2019an ere, hala nola editore eta idazle elkarte nagusientzako diru-laguntza izendunak, **Euskadi Literatura Sariak**, **Durangoko Azoka** laguntzea edo deialdi bidez literatur arloko jaialdiei diru-laguntzak ematea.

Kultura eta Sormen Industriak bultzatzeko lanaren baitan, 1.060.000 € bideratu dira sormen-lantegiak sustatzera, sormen-praktikak babesteko dituzten espazio kultural independenteak bultzatzeko **Sorguneak** laguntza lerroa baliatuta, kulturaren eta gizartearen arloko **bitartekaritza-**

eta **berrikuntza-proiektuak** babesten dituen **Bitartez** deialdiaren bidez. Gainera, hainbat diru-laguntza izendun eman dira sormenarekin lotutako proiektuetarako.

Kultur eta sormen industriak indartzeko jardunaren baitan, beste honako hauek ere gauzatu ditu Kultura Sailburuordetzak 2019an:

KSI Atea deritzon **Kultura eta Sormen Industrien nazioartekotze programa pilotuaren** barruan, hurrengo ekintza/faseak egin dira: diagnostiko fasea (KSletako 51 erakundeei nazioartekotze diagnosis egin zaie, atzerriko merkatuetara joateko duten potentziala ezagutu dezaten), formakuntza fasea (Euskadiko kultura eta sormen sektoreko erakundeak nazioartekotzearekin lotutako alderdietan trebatzera bideratutako saioak) eta nazioartekotze planen fasea (Euskadiko kultur eta sormen sektoreko 20 enpresarekin banakako 80 saio egin dira, nazioartekotzeko ildo estrategikoak zehazteko eta 2020an gauzatzeko ekintzak zehazteko).



KSI Berritzaile programaren baitan, Elkargi eta Basque Culinary Center diruz lagundu ditu. Programa horrek xede du **kultura zein sormen sektoreetan aukera espazioak sortu eta garatzea**. Elkargi, Elkarrekiko Berme Sozietatea enpresen finantza-gaikuntzaren ardatza garatzeaz arduratuko da eta Basque Culinary Centerri dagokionez, diru-laguntza Creadis 3 proiektuari lotuta dago (Europar Batasunaren baitan barruti adimendunak sortzea, Kultura eta Sormen Industriak bultzatuz): aholkularitza emango dio Finlandiako erdialdeko eskualdeari lurraldean gastronomia nola bultzatu jakiteko, garapen ekonomiko eta sozialaren ardatz bihurtzeko.



Sanagustin Kulturgunea elkarte diruz lagundu da Azepeitia Dinamo **gizarte eta kultura berrikuntzako proiektua babesteko** eta **Creadis 3 Europako ekimenaren** testuinguruan, jardunbide egoki hori nazioartean sendotzea eta partekatzeke. Helburua da parte-hartze kulturalan eta gizarte kohesioan oinarritutako eredu berritzailea bultzatzea da, sare horretan parte hartzen duten eragileen sormena, transmisioa, ikusgarritasuna eta kohesioa indartzeko.

Lan misioa Flandrian. Kultura Sailburuordetzak, SPRIK eta Innobasquek osatutako ordezkari batek lan misio bat burutu du Flandriako Gobernu berrikuntzaren eta ekintzailetzaren Agentziako klusterretako arduradunarekin eta Kultura eta Sorkuntza Industrietarako Flanders DC/Agentziako koordinatzaileekin. Kultura eta Sormen Industrien eremuan 2015ean sinatutako Euskadi/Flandria Lankidetzaren Hitzarmenaren baitan, horren helburua izan da **KSlen eremuan Flandriako Gobernu bultzatzen ari den estrategia xehetasunez ezagutzea** eta, era berean, Jauriaritza KSlen alde lantzen ari den alderdiekin alderatzea, ekintzailetzaren, berrikuntzaren zein enpresaren ildotik, Europako Espezializazio Estrategiarekin eta ZTBPrekin bat etorritz.

Euskadi-Quebec kultur topaketa profesionalak. Quebec eta Euskadiko kultur eragileen arteko topaketa antolatu du Etxepare Euskal Institutuak, elkar ezagutzea areagotu, **bi herrialdeen arteko kultur trukaketak sustatu, bi aldeetako sorkuntza eta hedapena bultzatu, esperientzia eta ezagutza trukatu, eta kultur erakusleihoak eratzeko** helburuarekin, 2020. urtean euskal kultur zein sormenari Quebecen ireki asmo den leihoaren harira. Arte eszenikoen, zinema eta ikus-entzunezkoen, literaturaren, musikaren, artearen eta hizkuntzaren alorreko hogeit bat quebehtar eragile, publiko zein pribatu, eta hirurogei bat euskal eragile bildu dira Euskadin.

Creative Cities Monitor 2019 txostena. Europako Batzordeko Berrikuntzaren Europako Agentziak hirien eta sormenaren inguruan argitaratutako 2019ko urteko Creative Cities Monitor txostenean **Euskadik presentzia esanguratsua** du. Bilboko eta Donostiako kultura-eskaintza eta sortze-ekosistema nabarmendu dituzte, sormenaren alde egiten duten lana dela-eta azpimarratuak izan diren 190 hiri eta lurraldeen artean duten papera nabarmenduz. Txostenak, halaber, Eusko Jauriaritzaren ikuspegia jaso du, sormenaren alde Europa mailan egin duen apustua azpimarratuta. Europako Batzordeak, halaber, Kultura Sailburuordea gonbidatu zuen txosten horretan esku hartzera, Europako agendaren barruan berrikuntza eta Kultura eta Sormen Industriak sustatzeko Eusko Jauriaritza egiten ari den ibilbidea aitortuz.



Sektoreekiko harremanari dagokionez, 2019an zehar **kultura politikak hitzartzeko mahai sektorialak sortzea** eta **Musika Bulegoa (EHMBE) Euskadiko musikaren plataforma** gisa finkatzea dira lortutako mugarrietako batzuk.

Bestelakoak

Elkano 500. Mundubira 500: Elkano Fundazioa Juan Sebastian Elkano euskal marinela protagonista izan zuen munduari egindako lehen biraren 500. urteurrena oroitzeko sustatzen ari den ekimen eta proiektuen artean, 2019an bi proiektuak izan dute Sailburuordetzaren babesa: batetik, **Euskadiko Orkestraren Mundubira musika bidelagun** izenburudun proiektua; bost obra enkargatu zaizkie beste hainbeste euskal konpositoreri, musika jar diezaieten espedizioaren zati ezberdinei, guztiak batera bidaiaren osotasuna isla dezaten. Bestetik, **Enrike Solinis** gitarrari-jotzaileak zuzentzen duen **Euskal Barrokensemble** aintzako musika taldeak sortutako Juan Sebastián Elkano: el primer

viaje alrededor del mundo da **CD-liburu** bikoitza; Alia Vox disko etxeak argitaratutako lan horrek, Elkano eta bere garaia aitzaki hartuta, gure ondare artistikoa berreskuratzen du eta, aldi berean, munduko hainbat kulturekin izandako hartu emanak gure musikatan utzitako arrastoa erakusten du.

Itzuliaren kartela. Sorkuntzaren eremuan, 2019an gertatutakoaren artean aipagarria da, halaber, Itzuliak bere kartela **euskal sortzaileei eskatzeko tradizioa berreskuratu** izana. Helburua da **Gerra Zibilaren aurreko tradizio bati heltzea**, garai hartan punta-puntako euskal artistek egiten baitzituzten Itzuliaren kartelak.

4.4./ KULTUR ESKAITZA

Kultura Sailburuordetzaren egiteko nagusien artean dago herritar orok Euskadin kultur eskaintzaz goza dezan ahalbidetzen duten guneak, publiko zein pribatuak, mantentzen, elikatzen eta indartzen laguntzea.

Kultur kontsumoaren inguruko datuak

Eskaintza horren kontsumoaren bilakaera ezagutzea eta bere jarraipena egitea da Kultura Sailburuordetzaren eginkizunetako bat eta hori **Kulturaren Euskal Behatokiaren** bidez. 2019an honako **ikerketak** aurkeztu ditu kultur kontsumoaren inguruan:

- **Euskal Herriko euskarazko kultur kontsumoari buruzko ikerketa**



- **EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta**



- **Ipar Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta.**



Eremu digitala

e-Liburutegia. Liburutegi digitala, Estatuko garrantzitsuena, osatzen eta aberasten jarraitu du Kultura Sailburuordetzak, **20.560 alera** iritsi da, horietatik, **1.600 film** eta **600 audioliburu** baino gehiago ere eskaintzera iritsi da. E-liburutegiaren ezagutza eta erabilera areagotzea lortzen ari gara, izen emate sistema errazten eta komunikazio kanpainak sustatzeko. 2019ko lehenbiziko sei hilabetean 30.206 lan mailegatu ditu (iaz epe horretan baino 3.955 gehiago), eta 3.162 erabiltzaile berri irabazi ditu, guztira, 32.899 erabiltzaile izatera helduz. Horiez gain, **Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren funts bibliografikoa** Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean integrazteko lana egin da, eta **Arantzazuko Santutegiaren liburutegiaren funtsak** sailkatzeko eta sarean integrazteko lanak ere sustatu dira.

Sancho El Sabio Fundazioa. Vital fundazioaren mendeko Sancho El Sabio Fundazioa munduan euskal bibliografia- eta dokumentu-funtsak biltzen dokumentazio-zentro aitzindarietako bat da eta erreferentziakoa kultura digitalizatzeko apustuan. Fundazioaren **artxiboko 3.000 liburu digitalizatzen** ari dira, Kultura Sailburuordetzarekin duen hitzarmen baten bitartez.

Era berean, beste zenbait erakunde, fundazio zein elkartek jaso dute euren funtsak digitalizatzeko laguntza: **Arabako Lurralde Historikoko Kuadrillak, Euskal Herriko Bertsozale Elkartea, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzaindegiak, Lazkaoko Beneditarren Fundazioa, Blas de Otero Fundazioa eta, Sabino Arana Fundazioa, Ramón Rubial Fundazioa eta Mario Onaindia Fundazioa.**

Kulturklik. Kultura Sailburuordetzak Kulturklik **plataforma digitala** bultzatu du Euskadiko kultur eskaintzaren zabalkundea eta kulturaren kontsumoa areagotzeko. 2019an 319.100,00 € bideratu dira horretara.



Kultur jaialdiak, ekitaldiak eta programazioa

Kultura Sailburuordetzak diru-laguntza izendun edo zuzenekin laguntzen ditu urtero Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako arlo askotariko hainbat kultur jaialdi, gizartean errotuta daudenak eta ibilbide luzea eta aitortua dutenak. Guztien artean kultur eremu ezberdinetan eskaintza aberatsa bermatzen da Euskadin eta askotariko publikoaren nahiei erantzuten zaie.

Horrela izan da 2019. urtean ere eta diruz lagundu dira: **67. Donostia Zinemaldia, 80. Donostiako Musika Hamabostaldia, Donostia Kulturaren ikus-entzunezko jaialdiak eta dFeria; 61. Zinebi, BBK Mendi Film Festival eta Antzerki eta Dantza Jaialdia Bilbon; FestVal jaialdiaren 11. edizioa, KALDeARTE eta Magialdia Gasteizen; Tolosako Titirijai eta Abesbatza Lehiaketa; Lekeitioko Euskal Zinema Bilerak eta Kaleka Jaialdia; Umore Azoka Leioa; Getxoko kultur jaialdiak eta GetxoPhoto; Araia-Asparreneko Umore Jaialdia eta Euskaltzaleen Topagunea, Durangon.**

Sailburuordetzaren babesa izan dute, halaber, **Operaren Lagunen Bilboko Elkarrearen (ABAO-OLBE)** opera denboraldiak, **Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren** musika eskaintzak eta **Euskal Herriko Gazte Orkestraren** emanaldiak.

Aipagarriak dira musika eta literaturaren sektorean Euskadin gailena den **Durangoko Azoka, Irudika, Ilustrazioaren Nazioarteko Topaketa profesionalaren 3. edizioa Gasteizen, eta Free To Play (F2P) Gasteizko Campusa**, free to play doako bideo-jokoen sustapenerako munduko lehena.

SAREAK, Euskadiko antzokietan kalitatezkoa eta interesekoa den **arte eszenikoetako programazio egonkorra** koordinatu, bultzatu eta hedatzeko 63 espazio eszeniko biltzen dituen proiektuak 161.000,00 € jaso ditu 2019an. Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen arteko lankidetzaren egitasmo hori erreferentziakoa da Estatu mailan.

Museoak/Erakusketak

Artearen Euskal Sistema deritzona osatzen duten EAEko museo eta zentro erreferentziakoenak Sailburuordetzaren babesa jaso dute, urtero legez. 2019an diruz lagundu dira Guggenheim Bilbao Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Azkuna Zentroa, Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, San Telmo Museoa, Cristóbal Balenciaga Museoa. Izan ere, euskal artista eta sortzaileentzat ez ezik, Euskadiren kultur sorkuntza nahiz eskaintzaren ikusgarritasunaren eta nazioartekotzearen eragile nagusi dira horiek guztiak.

Horiek aurten eskainitakoen artean nabarmenenak dira:

Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa

Galduaz eta berreskuratuaz. Javier Hernández Landazabal
Jacobo Castellano. riflepistolacañon
Juan Carlos Meana. NOS[YO] OTROS
Eskualdea 2019. Komisariotza
Muntadas Elkarrekiko loturak, interconexiones, interconessioni
Magnet-Erakarri

Guggenheim Bilbao Museoa

Kunsthalle Bremen-en Bildumako Maisulak: Delacroixetik Beckmannera
Luis Fontana. Atarian
Atzera begira: Giorgio Morandi eta antzinako maisuak
Jenny Holzer. Zera deskribaezina

Bilboko Arte Ederren Museoa

Zubiaurretarrak
Joos van Cleve
Zuloaga (1870-1945)
Inpresioak ehizatuz: Sorolla formato txikian

Azkuna Zentroa/Alhondiga Bilbao

Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa
Komisario berriak: Garazi Ansa, Marc Badal eta Laura Vallés
Open Codes. We Are Data

Cristóbal Balenciaga Museoa

Fabiola Belgikakoa. Ezkontza soinekoa

#FinaEstampa_

Cristóbal Balenciaga. Moda eta ondarea. Testuinguruak

San Telmo Museoa

Arzak bere saltsan

Donostiako soinu. 80. Musika Hamabostaldia

Heriotza. Ante la muerte

Hello, Robot. Diseinua gizakiaren eta makinaren artean

HAU. Euskal Herriko objektu tradizionalen diseinu lehiaketa

GURE_RBTk

Sandro Miller. Malkovich, Malkovich, Malkovich. Argazkilaritzako maisuei omenaldia

Tabakalera

Esther Ferrer erakusketa

Jumana Manna

Uriel Orlow

Madrassa Collective. On Fail[!]ed Tales and Ta[y]lors

Filipa César. Kotoiaren algoritmoak

Eskaintzari lotua, eta Sailburuordetzaren ekarpenik jasotzen ez badu ere, aipatzekoa da 2019an **Chillida Lekuk** atek ireki dituela, erabateko garrantzia baitu horrek Euskadiko kultur eskaintzan eta horren nazioarteko zabalkundearen. Eduardo Chillidaren obra berri ere ikusgai dago herritar ororentzat.

Bestalde, **Euskadiko Artxibo Historikoak**, bere funtsak herritarrei zabaltzeko asmoari eutsita, material fotografikoa ekoizten zuen Valca enpresari buruzko erakusketa bat antolatu du, konpainia horren ibilbidea gogoratzeko eta 2018an horren funtsak jaso izanaren harira.

Euskal kulturaren hedapena Ipar Euskal Herrian. 2019an Kultura Sailburuordetzak EKE-Euskal Kultura Erakundea 70.000 €rekin lagundu du, Ipar Euskal Herrian euskal kultura zabal dezan.

4.5./ MEMORIA BIZIA

Ondarea memoria bizia da, gizartea bilakatzen doan heinean bilakatzen doana, etengabe berritzen eta berrikuntza sustatzen. Memoria hori eraiki, zaindu eta zabaltzea erakundeei dagokigu, baina ez bakarrik: gizarte osoari dagokion zeregina da eta, horregatik, erakundeon eta gizarteko gainerako eragileen arteko elkarlana sustatzea eta ahalbidetzea dagokigu, horretarako baliabideak eskainiz. Bide horretan, arestian aipatu Euskal Kultura Ondarearen Lege berria aurkezteaz gain, honakoak dira 2019. urtean egindakoak.

Museoen Zentroak Museoekin izandako harremanak hobetu eta indartu ditu, aurrekontua igo da eta baita EMSIMEren berrikuntza bultzatu ere. Bestalde, Euskadiko Museoen Aholku Batzordea berritu da lanean hasi da. Gainera, eskaria egin zaio Barakaldoko Udalarari **Orkonerako** Pabiloien lagapena egin dezan, bertan kokatzeko **Euskal Industria Ondarearen Bilduma**; ildo berean, Barakaldoko Udalaren eta Bilboko Portu Agintaritzaren arteko lankidetzaren protokolo berri bat Barakaldoko mea-kargaleku zaharren inguruan. Protokoloaren helburua da kargaleku zahar horiek ezagutarazi, birgaitu, kontserbatu eta zaintzea, elementu horien balioa nabarmenduz eta industria-ondarearen garrantziaren gainean sentsibilizatuz.

Bilboko Arte Ederren Museoaren eraberritze-lana egingo duen arkitektura-taldea hautatu da: UTE Foster + Partners Ltd. + LM Uriarte Arkitektura S.L.P. taldea, hain zuzen, **Agravitas** proiektuarekin. Horrek museoaren espazioa handitzea ahalbidetzen du, bildumen erakustokia zabaltzeko, hezkuntza programak nahiz zabalkunde programak garatzeko, eta irtenbidea emango dio museoak hiriarekin duen loturari. Museoa handitu eta berritzeko kontratua betearazteko, museoak zenbatetsitako gehienezko aurrekontua 18.658.200 €koa da (BEZ barne).

Artxibo eta Ondare Zerbitzuak aurten gauzatu dituen artean daude **Joaquín Ignacio de Barrenechearen Soissons (1727-30) Kongresuko korrespondentzia diplomatikoaren** aurkezpena, **Inchausti, Castells-Arteche eta Díaz de Mendibil familien** agirien eta **Sáenz de Tejadaren argazkien** eskuratzea ere. Halaber, **Joxe Miguel de Barandiaran Fundazioaren, Txema Larrea eta Jon Bilbao idazleen eta Juantxu Rodríguez argazkilariren funtsak** ere bereganatu ditu. Bestalde, euskal filmen berreskuratzea bultzatu du. Aipatzekoa da **Eusko Ikaskuntzarekin** akordio bat sinatu duela erakunde horren funtsen parte bat Euskadiko Artxibo Historikoari lagatzeko, horien artean **Euskadiko Historia Garaikideko Dokumentazio Zentroan bildutako materiala** zenbait euskal familiak eta erakundek Eusko Ikaskuntzari dohaintzan emandako dokumentuak. Gainera Agirien Kudeaketa Integralerako Legearen Aurreproiektuaren zirriborroa idatzi eta dagokion tramitazioa hasi da.

Liburutegi Zerbitzuak lan hirukoitza izan du aurten: **Irakurketaren Sare Publikoaren** ohiko kudeaketa gauzatzeko gain, martxan jarri da **Lege Gordailuaren dekretu berria** eta horri dagokion biltegiaren zati bat Bilbora eraman da; gainera, **Euskariana egitasmoan** eman diren aurrerapausoen artean, hitzarmena sinatu da Europeana, europar liburutegi digitalarekin: Europeana Fundazioarekin sinatutako protokoloari esker, liburutegi digital horren interfaz-a euskaraz egongo da, www.europeana.eu webgunearen bidez; atari horrek Europar Batasuneko 28 estatu kideetako erakunde esanguratsuen bilduma digitalizatuak biltzen ditu. Bestalde, Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren liburutegiaren sailkapena egin da. Ezin bazter ditzakegu, halaber, Arantzazuko Santutegiaren Liburutegiaren funtsak sailkatzeko eta sarean integratzeko lanak sustatu direla eta, bere mendeurrenean, **Argia astekariaren 2.600 zenbaki baino gehiagoren digitalizazioa**, argitalpenarekin izenpetutako lankidetzaren akordioari esker.

Euskadiko Liburutegiaren zerbitzu berria izateko lanak gauzatu dira, **Euskariana**. Euskarianaren "eraikuntzak" lau zutabe izan ditu oinarri 2019an: **Digibis Software berria** eskuratzea: liburutegi, artxibo eta museo funtsak kudeatzeko baliagarria, Europeana Datu Eredura egokitua eta Linked Open Data teknologiaren bidez lotura semantikoak egiten dituenen. **Euskal kulturaren katalogo kolektibo berria**: 483.000 erregistroz osatuta, 2.000.000 erregistro baino askoz ere gehiago miatu ondoren. Interneten dauden **euskal kulturaren** 144.202 **objektu digital libreraren estekak identifikatu eta eskuragai** jartzea (Eusko Jaurlaritzaren bildumetarik eta OAI-PMH protokoloaz lan egiten duten errepositorio kultural eta unibertsitarioetatik hartuak). **6.100 euskal egileren erregistroak jartzea**: horietatik, Linked Open Data teknologiaren bidez, 4.581 erregistro aberastu dira Interneten zegoen informazio osagarria erabilia.

Euskal Kultura Ondarearen Zentroari dagokionez, ondare materiala zein immateriala balioan jartzeko eta zabaltzeko diru ekarpena 2,3 milioi eurokoa izan da 2019an. Zentroak sustatutako ekimenetako batzuk dira jarraian jasotakoak: **Euskal itsas ondarea babestu, zabaldu eta horri balioa emateko** 26 proiektu babestu dira diru-laguntzen bidez. Horren helburua da itsas ondareak historian zehar izan duen aitoren eskasa arintzeko oraindik geratzen dena babesteko ekimenak laguntzea. 2019an 131.136 € esleitu dira, bost laguntza modalitateren bitartez: zurezko ontzien musealizazioa ekonomikoki laguntzea; jendeari zerbitzua emateko zurezko ontziak zaharberritzea eta armatzea; lurreko instalazioen balioa nabarmentzea (ontziolak, lonjak eta ontziralekuak); zurezko ontziak konpontzeko eta egokitzeko gastuen ordainketa laguntzea (batez ere egurrezko ontzien jabe txikiei zuzendutakoa); eta, azkenik, egurrezko ontzien arloari balioa emateko ekimenak antolatzea.

Bestalde, Sailburuordetzak euren ondarea zaindu edo zabaltzeko babesa eman die hainbat erakunderi izendun laguntzen bidez. erakunde horiek dira: **Labayru Institutua** (Euskal Herriko folklore atlasa egiteko), **Euskadi-Sahara Kultur-Bilakaerarako Erakundea** (Saharan indusketa arkeologikoak eta azterketa etnografikoak egiteko), **Joxe Miguel Barandiaran Fundazioa** (Barandiaranen ondarea gizarteratzeko) eta **Aranzadi Zientzia Elkarte** (urteko jardunaren finantziazioan laguntzeko).

Iruña / Veleiako Opidumeko harresiaren hegoaldeko atea sendotu eta hari balioa emateko proiektua gauzatu du arkeologo talde batek. Jardun garrantzitsua da Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzari esker egin den hori, izan ere, aztarnategiaren eremurik agerikoenetako bat baita.

Lekeitiko Garraitz uhartea parke arkeologiko izendatzeko aukera aztertzen hasi da Saila, Lekeitio Udalak bertako hiru gune arkeologikoak parke arkeologiko izendatzeko eskariari erantzunez.

Erromes bidea Euskadin. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika **Sailak eta Japoniako Mie Prefekturako Gobernuak lankidetzaren memorandum bat sinatu** dute 2019an erromes ibilbideen inguruko elkarlana sustatzeko eta elkarrekin kultura-ekimenak bultzatzeko. Mie-ko ordezkariak Euskadin Santiago Bidearen nola kudeatzen den aztertu eta ikasi nahi dute, etorkizunean Kumano Kodo bidean lan-ildo horiek garatzeko aukerak aztertzeko. Bestalde, Donejakue bidea herritarren artean ezagutzera ematen jarraitzeko, udazkenean horren inguruko bisita-ibilbide gidatuak burutu ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan barrena.

Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaiaren hautagaitza UNESCOren munduko ondareerako. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Errioxako Gobernuak adostu dute Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaiaren munduko ondareerako hautagaitza elkarrekin sustatzea eta horretarako **lankidetzaren protokoloa** sinatuko dute. Errioxako ardoaren eta mahastien kultura paisaiaren hautagaitza 2015ean aurkeztu zitzaion estreinakoz UNESCOren Mundu Ondarearen Batzordeari, eta mundu ondarearen zerrendan sartzea geroratzeko erabakia hartu zuen eta, horrela, hautagaitza berriro formulatzeko aukera zabalik utzi zuen.

Santa Maria Katedrala Fundazioak 2019an 150.000 € jaso ditu Katedrala balioan jartzeko eta, gainera, **2019ko Europako Ondare Arkeologikoaren Saria** jaso du erakundeak, Gasteizko katedral zaharra eta bere ondarea zaintzeko egindako lana aitortzeko.

Donostia 2016 Fundazioarekin hitzarmena sinatu da Donostia 2016 Kultur Hiriburutzari lotutako Tosta, **Hizkuntza Aniztasunaren Europako Foroa** eta **Hitzargiak** proiektuak bultzatzeko, Fundazioa erabat desagertzean proiektu horiei jarraipena eman asmoz.

Kultura ondasunen babesaren arloan, ondasun izendapenak jaso dituzte **Bilboko Burdin Hesiak zein Gerra Zibilari lotutako defentsek** eta **Donostiako Uliak parkean dauden Sorobordako eta Buskandoko ur-biltegiek**. **Donostiako Haizearen Orraziaren Plaza eta Eskulturak** ondasun kalifikatu gisa aitortzea onartu da, Monumentu Maltzo kategoriarekin. Eta **Donostiako Alde Zaharra eta kaia** ere kultura ondasun kalifikatzeko dekretua onartu da, Monumentu Maltzo kategorian.

Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoko eta Jabetza Intelektualaren Erregistroko Zerbitzuak

2019an egindakoen artean bereziki nabarmentzekoa da **Euskadin Lege Gordailuaren kudeaketa arautzen duen dekretua** onetsi dela: 139/2019 Dekretua, irailaren 10ekoa, Euskadin lege-gordailuaren kudeaketa arautzen duena (4424. 2019-09-30. EHAA 185. Zk)



Bestalde, **Jabetza Intelektualaren Erregistroari** dagozkion eskaera ereduak eta dokumentazioa hobetu dira eta www.euskadi.eus barruan sartu da erregistroan **tramitazio elektronikoa** egin ahal izateko aukera. Gainera, ustiapen eskubideak kudeatzen dituzten erakundeekiko bere eginkizunei eutsi dio. **Aholkularitza Juridikoak** ere ohiko jarduna burutu du: Kultura Ondarearen Zuzendaritzak sustatutako lege aurreproiektuak eta horiek garatzeko araudiak idazten parte hartu, kultura ondasunen babesa arautzen duten dekretuak, diru-laguntzen deialdiak eta ebazpenak aztertu eta abar.

4.6./ GOVERNANTZA

Kultura Sailburuordetzaren betebeharren artean dago gobernantza partekatuan sakontzea, kulturaren ardura daukagun erakundeen arteko, zein sektore profesionalekiko ardura kidetasuna hobeto artikulatzea, lankidetzaz aberasgarriago eta emankorrago gerta dadin.

Kulturaren Euskal Behatokia.

2019an, Behatokiak lau estatistika-eragiketa argitaratu ditu, bost azterlan kualitatibo eta bi panel garatu ditu:

Estatistika-eragiketak dira:

- **Euskal Herriko ohitura, praktika eta kontsumo kulturalaren estatistika (2018)**



- **Erkidegoko Museo eta Bildumen 2008-2018 Estatistika Txostena (2018)**



- **Ikuspegiak. Arteen eta Kultura-industriren Estatistikako datuen irakurketa analitikoak (2017)**



- **Euskal Autonomia Erkidegoko sormen-industriren estatistika (2017)**



Gainera, **artxiboei buruzko estatistika-eragiketaren kontrastea eta landa-lana** egin da.

Egindako **azterlanak eta argitalpenak** kultur politiken agenda markatzen duten gaietan sakontzera bideratutako azterketa kualitatiboak dira:

- **Goi-mailako arte-irakaskuntzaren egoera eta erronkak**



- **Eskubide kulturalak**



- **Kulturaren profesionalen eskubideak Artistaren Estatutu berriaren argitan** (argitaratu gabe)

- **Karrera artistikoak profesionalizatzea** (argitaratu gabe)

- **Kaleko arteen inpaktu soziala** (Artekale) (argitaratu gabe)

Panel azterlan batek, denboran zehar, lagin-unitate beraren jarraipena dakar, eta aldaketa patroiak identifikatzen laguntzen duten banakako inguruabarrak behatzeko aukera ematen du. Bi panel aktibo ditugu:

- **Kultur Ohituren panela (5 eta 6. olatuak)**

- **Enpresa-konfiantzaren adierazleak kulturaren**

Kultura Auzolanean. Halaber, kultur gobernantzaren esparruan Kultura Auzolanean programaren pean lan egiten da. Horren helburua da eragile publiko eta pribatuen artean euskal kultura osoaren ikuspegi estrategikoa, jarduera irizpideak eta lehentasunak adostea. Beraz, kultura-plangintza ildo koordinatu batzuen arabera bideratzeko proiektu-multzo gisa definitu da. Jarduera eremua kontuan hartuta, bi taldetan banatzen dira proiektu horiek: **Kulturaren Euskal Kontseiluak (KEK)** zuzendutakoak eta **Erakunde arteko Kultura Batzordeak (HAKOBA Kultura)** zuzendutakoak.

Hauek izan dira 2019an esparru horretan garatutako proiektuak:

HAKOBA Kultura:

- **Emakumeen presentzia museoetan.**
- **Sortzaileen duintasuna arte bisualetan.** Hainbat bilera egin dira Euskadiko Arte Zentro eta Museoetako arduradunekin.
- **Euskadiko sorkuntza-lantegien sistema.**

KEK:

- **Emakumeek kulturaren duten presentzia eta parte-hartzea - Gainerako sektoreak.**
- **Artikulazio sektoriala birpentsatzea.**
- **Kulturaren presentzia komunikabideetan.** Landa lana aztertzen.
- **Irakurketa sustatzeko plana.** Gaur egun, jardunbide egokiei buruzko landa lanaren prozesuan eta lehen lan txostenen egituraketan dago.

Sariak. Euskal kulturaren ikusgarritasuna areagotzeko eta sortzaileei aitortza aiarazteko neurriak sari-politiken bidez garatu dira, **Gure Artea Sariak, Euskadi Literatura Sariak** edo **Kultura Ondarea Sariak** bezalako bidez. Gainera, sari-emateak publizitate kanpainekin lagundu dira sarituen berri eman eta horien lana jendeari helarazteko.

Euskadi Literatura Sariak zazpi modalitateetan ematen dira eta aurreko urtean argitaratutako literatura lanen kalitatea saritzen dute, literaturaren alorreko idazle, itzultzaile eta ilustratzaileen sorkuntza sustatzeko. Sariaren asmoa bikoitza da: saritutako lanak zabaltzea eta egileak eurak eta euren obra ezagutaraztea. Duten oihartzun eta garrantziagatik, euskal literatura sustatzeko eta zabaltzeko tresnarik egokienetakoa bat bihurtu dira. 2019an sarituak izan dira:

- **Euskarazko literatura: Irati Elorrieta Aguirre: *Neguko argiak*, Pamiela (2018)**
- **Gaztelaniazko literatura: Ramon Eder Labayru: *Palmeras solitarias*, Renacimiento (2018)**
- **Euskarazko haur eta gazte literatura: Patxi Zubizarreta Dorronsoro: *Korri, Kuru, korri!*, Ibaizabal (2018)**
- **Euskarazko literatura itzulpena: Isabel Etxebarria Ramirez: *Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak*, Alice Munro. Erein & Igela (2018)**
- **Literatura lanaren ilustrazioa: Asisko Urmeneta Otsoa Errarteko: *AztiHitza*, Erroa (2018)**
- **Euskarazko saiakera: Juan Carlos Etxegoien Juanarena: *Etxera bidean*, Pamiela (2018)**
- **Gaztelaniazko saiakera: Daniel Innerarity Grau: *Política para perplejos*, Galaxia Gutenberg (2018)**

Gure Artea Sariak saria jasotzen duten pertsona fisiko edo juridikoen lanaren ordaina dira, baita euskal arte garaikideari eta euskal kulturari egiten dioten ekarpenaren aitortza ere. 3 modalitateetan ematen dira:

- **Ibilbide artistikoa aitortzeko saria:** lan eta ibilbide osoa aintzat hartuta, egindako lan sortzaileagatik eta kulturari eta arte garaikideei egindako ekarpenagatik.
- **Sorkuntza-lana aitortzeko saria:** azken urteak aintzat hartuta, bere jardueraren artistikoagatik eta sortzaileagatik eta sorkuntza garaikideari egindako ekarpenagatik.
- **Arte plastiko eta ikusizko arloko eragileek egindako lana aitortzeko saria:** EAEko arte plastiko eta ikusizkoen arloan egindako ekarpenagatik, kulturaren balio-katearen faseetan (ikerketa, prestakuntza, sorkuntza-ekoizpena, sustapen-hedapena eta banaketa) horiek sustatzeko jarduerak garatuz egindako lanagatik.

2019 irabazle suertatu dira **Miren Sorne Arenzana Letamendi (Ibilbide Artistikoari Saria)**, **Sahatsa Jauregui Azkarate (Sorkuntza Lanari saria)** eta **Xabier Arakistain Ecenarro, Arakis (Ikusizko Arteen arloan egindako Lanari Saria)**.

Kultura Ondarea Sariak. Euskal kultura ondarearen ezagutza zabaltzen hobekien laguntzen duten 2018-2019ko ikasturteko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako, Batxilergoko lehenengo mailako eta Lanbide Heziketako Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo mailako ikasleen lanak saritzea izan da sari horien helburua. Aldi berean, sari horiek ekimena, berrikuntza, ekintzailetza gaitasuna, sormena eta gizarte garapena bultzatu nahi dituzte hezkuntza alorreko eremu guztietan. 2019an, 33 ikastetxetako 153 ikasle taldek hartu dute parte eta lehiaketan inoiz parte hartu duen kopuru handiena da hori. **Getxoko Nuestra Señora de Europa Ikastetxeko, Markina-Xemeingo Lea Artibai Ikastetxeko** eta **Ondarroako Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasleek jaso dituzte sariak**, hau da, Napolirako zazpi eguneko bisita kulturean parte hartzeko eskubidea. Kultura Ondarea Sariak urtero antolatzen da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Hezkuntza Sailaren elkarlanari esker.

Euskadi Gastronomia Sariak. Euskal Gastronomia Akademiak eta Eusko Jaurlaritzak ematen dituzte sari hauek. 2019. urtean sarituak izan dira:

- **Jatetxe jaberik onenari Euskadi Gastronomia Saria: Pablo Loureiro Rodil, Urola Jatetxea Donostia**
- **Jangela zuzendaririk onenaren Euskadi Gastronomia Saria: Lourdes Rekondo Azpetegia, Rekondo Jatetxea Donostia**
- **Kazetari lanik onenari Euskadi Gastronomia Saria: Mikel López Iturriaga**

- **Argitalpenik onenari Euskadi Gastronomia Saria: *Basque Country* (Marti Buckley)**
- **José María Busca Isusi Saria: Hazi Artzain Eskola**
- **Manuel Llano Gorostiza Saria: Hiruzta, Getariako Txakolina Jatorrizko izena duen upategia**
- **Luis Irizar Saria: Aiala Ostalaritza Eskola**
- **Juan José Lapitz Saria: Otatza Gaztategia - Joseba Insausti Mujika**
- **"Academia Vasca de Gastronomía" Aparteko Saria: Nekazaritzako Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia**

4.7./

KONPROMISOAK, EKIMENAK, EKINTZAK

Irakurketa plana. Herritarrengan irakurzaletasuna bultzatzea jomuga harturik, 2019. urtean Euskadiko Udal Liburutegi sareak xede horrekin sustatzen dituen proiektuei eman ohi zaien laguntza mantendu da. Zentzu horretan, **irakurketa klub birtuala** ekimenean aurrera egin da, euskarazko idazlanen irakurketa bultzatzeko asmoz eta horren inguruko irakurle komunitate bat eratzeko. Irakurzaletasuna sustatzearen helburu berarekin, **Galtzagorri Elkartek** 36.000 euroko diru-laguntza jaso du; horrekin 100 lantegi praktiko egingo ditu elkarteak EAEko HH, LH eta DBHko ikastetxeetan, irakasleei gazte eta haurren artean irakurzaletasuna, eta bereziki euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizteko lan ditzaketen estrategien inguruan hitz egiteko. Horrela, Udal liburutegien eta eskolen arteko sare lana bideratzen da, baliabide publiko ezberdinak lotuz haur eta gazteen irakurtzeko zaletasuna sustatzeko bidean.

Euskal kultura nazioartekotzea.

Euskadi Basque Country nazioartekotze estrategia izan da Eusko Jaurlaritzak XI. legegintzaldiko giltzarritzat ezarri zituen dituen 15 plan estrategikoetako bat. Estrategia horren baitan, egiteko nagusien artean izan da euskal kultura, sorkuntza eta euskara nazioartekotzea. 2019. urtean aurrerapauso azpimarragarriak eman dira norabide horretan.

Gurean badira nazioartekotze horretan paper azpimarragarria duten jaialdi, museo edo kultur erakundeak (**Guggenheim, Donostia Zinemaldia, Jazzaldiak, Tabakalera, Santa Maria Katedrala...**). Baina horrekin batera nazioartekotze lanarekin lotuta dago gure kultura industriak indartzea ere nazioartekotzeari lotuta dago, eta zeregin horretan Etxepare Euskal Institutuarekin koordinatuta eta lankidetzan jardun dugu. 2019an **Basque. marka** ezartzen hasi gara, eta 2020an amaituko da. Nazioarteko merkatu profesional hauetara joan gara. **Musika arloan, Womex, Bime, Classical Next, Monkey Week, Mercat de Musica Viva de Vic... Ikus-entzunezkoan, Berlinale, Marche du Film-Cannes jaialdia, Zinemaldia, Abycine, Annecy, Fipadoc ... Liburugintzan Boloniako Haur Liburuaren Azoka, Irudika, Guadalajarako Nazioarteko Liburu Azoka, Frankfurteko Nazioarteko Liburu Azoka, Liber** eta abar. Eta **arte eszenikoen arloan, dFeria, Umore Azoka eta Fira Tarrega.**

Euskadiko Soinuak programara 25.000 € bideratu dira, Euskal Herriko Musika Bulegoarekin eta Etxeparearekin elkarlanean musika sektoreari nazioarterako aukerak zabaldu aldera. Eta liburugintza sektoreari ere bide horretan laguntzeko, Editoreen Gremioari 102.000 €ko laguntza izenduna eman zaio.

#ScotlandGoesBasque. Kultura nazioartekotzearen atal honetan aipamen berezia merezi du **Etxepare Euskal Institutuak**, lehenbiziko aldiz, **2019. urtean gauzatutako urte osoko programak.** Horren

eskutik, Eskozian leihoa ireki zitzaizen euskal kultura zein sorkuntza garaikideari eta baita euskarari ere. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza jaso duen egitasmo horrek euskal kultura garaikidea Eskozian ezagutzera ematea, bertako artista eta kultur eragileekin zubiak eraikitzea eta, kulturaren bidez, bi herrialdeen arteko loturak estutzea izan du jomuga. Urtariletik azaroa bitartean, musika, zinema, arte eszenikoak, literatura eta komunikazioa hizpide hartuta, 86 euskal sortzaile izan dira Etxepare Euskal Institutuak Eskoziara nazioarte mailako kultur plataforma garrantzitsuen baitan sustatutako 106 ekintzatan, eta 137 euskal kultur eragilek egin dute Eskoziara bidaia.

5/

Euskara eta Genero Berdintasuna

Nazioartekotzearekin batera, Sailaren eta, era berean, Sailburuordetzaren jardunaren zehar-lerroetako bi dira hizkuntza zein genero berdintasuna.

Euskararen aldeko berdintasuna bermatu aldera, bai sailburuordetzaren egunerokoan eta baita sustatu edo lagundutako ekimen orotan aintzat hartu beharrekoa da euskararen aldeko apustua: kultura-ekintzak sustatzeko politiketan, diru-laguntza deialdietan, laguntzak erabakitzen dituzten batzordeak eratzeko orduan eta abarretan.

Genero berdintasunari dagokionez, bereziki azpimarratzekoak dira Noka Mentoring emakume zinegileei zuzendutako mentoring eta akonpainamendu proiektua edota Kulturaren Behatokian eta arte zentroetan genero- kuspegia txertatzeko konpromisoa.

5.1./ EUSKARA

Kultura Sailburuordetzak kultur politika publikoetan ezinbesteko jotzen duen ardatz bat da hizkuntza berdintasuna, hortaz, **euskaraz eta euskaratik sortzen den kulturak eta euskara oinarri duten proiektuak sustatu dira**. Deialdi irekien bidez, diruz lagundu dira: euskarazko lanen edizio planak, euskaraz eleberriak, ipuinak zein nobela laburrak edo antzerkia sortzea; euskaraz sortutako fikziozko zinea zein dokumentala; izendun laguntzak eman zaizkie euskaraz idazten duten idazleen elkarteari, itzultzaileei, editoreei...; sariz aitortu dira euskarazko literatura haur, gazte zein helduentzat, euskarazko saiakera eta itzulpengintza. Bestalde, ugari dira euskarazko kultur sorkuntza, ekoizpena eta zabalkuntza laguntzea helburu duten erakundeak: Durangoko Azoka, Donostia Zinemaldia, Zineuskadi, Kaldearte... Bestalde, euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizteko ekimenak bideratu dira Liburutegi Zerbitzutik.

Kultura-ekintzak sustatzeko politikak diseinatzerakoan egiten den bezala, **hizkuntza berdintasuna bermatzeko irizpideak arlo guztietan daude txertatuta**, esaterako, diru-laguntza deialdiak idazterakoan edo laguntzak erabakitzen dituzten batzordeak eratzerakoan.

5.2./ GENERO BERDINTASUNA

Kultura Sailburuordetzarentzat legealdiko helburu nagusienetako bat izan da genero ikuspegia bere politika guztietan txertatzea, kulturaren kudeaketaren alorretan emakumeen presentzia sustatzeko diru-laguntzak bideratuz eta emakumeen parte-hartze handiagoa bultzatuz. Horretarako hainbat neurri hartu dira 2019an, proiektu berriak martxan jarritz: **Genero programak eta politikak kultura jardunaldiak** egin dira eta **Kultura Auzolanean programaren eskutik sorkuntzaren eta industriaren ikuspegitik antzerkia, dantza, liburu eta musikaren arloan genero-berdintasunaren egoera diagnostikoa** egin da (horietan ondorioztatu da kultura-enpresen eta -erakundeen zuzendaritzan emakumeen presentzia % 37koa dela); **NOKA programa** indartu da, **(H)emen elkartearekin** ekintza zehatzak diseinatu dira zinema sektorean aritzen diren emakumeen datu base bat sortzeko eta, bestetik, **Zinemakumeak gara!** emakumeek egindako zinemaren jaialdia indartu da. Bestetik, **ondare materiagabearen alorrean, garrantzi berezia eman zaie emakumeekin zerikusia duten esparruei**. Esaterako, hartutako neurrien artean, diru-laguntzan deialdietan, emakumeak protagonista diren ondare materiagabe horiei balorazio handiagoa emango zaie. Gainera, Sailburuordetzako teknikariek formakuntza jaso dute berdintasunean.

Artearen eta kultura eta sormen industriren estatistikak ikerketak agerian utzi dituzten hainbat desorekaren azterketa egin da sormen industriren lanpostuetan, sektorearen arabera. Eta 2019ko edizioako datuen arabera, Donostia Zinemaldiak lehenengo aldiz egindako *Filmetako profesionalen genero identifikazioari buruzko txostenak* azaleratu du 67. Zinemaldiko filmetan parte hartu zutenen % 30 bakarrik zirela emakumeak oro har; baina badago salbuespen nabarmenik: *New Directors* sailean (zinemagileen lehen eta bigarren obrak) emakumezko zuzendari, gidoilari eta muntatzaileen film gehiago programatu ziren eta *Nest* sailean (zinema-eskoletako ikasleen film laburrak) emakumezko zuzendari, produktore, muntatzaile eta argazki-zuzendarien lan gehiago hautatu ziren; *Ikusmira Berriak* sailean ere (proiektuak garatzeko egonaldia) emakumezko zinemagileak gehiengoa izan ziren. Txosten hori osatzeko inskribatutako 3013 film eta zuzendaritza, produkzioa, gidoia, argazkia, musika eta muntaia atalak aztertu dira.

6/

Eranskinak

6.1./ **DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAK**

6.1.1.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren diru-laguntza deialdiak

6.1.1.1. **Museoak**

2019. urteko Euskadiko museo eta bildumetarako diru-laguntzak

Deialdia

3933. 2019-08-19. EHAA 155. zk.

Agindua, 2019ko uztailaren 24koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta arautzen baitira 2019. urteko Euskadiko museo eta bildumetarako diru-laguntzak.



Xedea

Agindu honen xedea da Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan inskribatuta dauden museo eta bildumetzako diru-laguntzak arautzea eta haientzako deialdia egitea; laguntzak 2019. urtean emango dira museo-jarduerak gauzatzeko (bilduma osatzen duten funtsak katalogatzea eta dokumentatzea, erakusketa finkoa berritzea eta aldi baterako erakusketak egitea, jarduera didaktikoak eta kultura zabaltzekoak diseinatu eta eskaintzea, euren gai eta jarduketaren eremuarekin lotutako ezagutza sortzea, berrikuntza hobetu eta bultzatzea museoaren kudeaketan eta zabalpen- eta komunikazio-planean).

Diru kopurua

700.000 €

Batzorde erabakitzailea

Batzordeburua:

Mikel Aizpuru Murua
(Kultura Ondarearen zuzendaria)

Bokalak:

Iñaki Arrieta Urtizberea

Miren Aurkene Alzua

Mikel Carrillo de la Peña
(Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria)

Idazkaria:

Aitor Antuñano Zubiete
(Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria)

Ebazpena

2019-12-19

Onuradunak

Lurraldea	Onuraduna	Proiektua	Diru-laguntzaren kopurua
Araba	Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa (Vitoria-Gasteiz)	Funtsen katalogazioa eta dokumentazioa, eta erakusketen Artxibo Historikoaren sorkuntza EMSIMEn.	22.293,85 €
Araba	Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa (Vitoria-Gasteiz)	Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoaren 20. urteurreneko gida berriaren prestaketa eta edizioa.	7.775,06 €
Bizkaia	Antzasti Kultur Elkarte (Dima)	Bilduma osatzen duten funtsen katalogazioa eta dokumentazioa.	9.487,55 €
Bizkaia	Antzasti Kultur Elkarte (Dima)	Erakusketa iraunkorra berrantolatzeko proiektua.	2.194,88 €
Bizkaia	Astarloa Kulturgintza	Durangoko Arte eta Historia Museoa: 2019ko proiektuaren memoria.	30.742,22 €
Bizkaia	Portugaleteko Udala	Rialia Industria Museoa: 2019ko erakusketa proiektua.	19.954,01 €
Bizkaia	Portugaleteko Udala	Rialia Industria Museoa: 2019ko jardura didaktikoak eta kulturak.	2.393,12 €
Bizkaia	Bilbao Bizkaia Museoak SL	Bilboko Euskal Museoa: Artxibo sistemaren kudeaketa eraginkorra.	22.870,34 €
Bizkaia	Bilbao Bizkaia Museoak SL	Bilboko Berreginen Museoa: Altxor elektrikoak. Urregintza erromatarren eta faksimile industrialaren artean.	27.175,42 €
Bizkaia	Arte Sakratuaren Museoa (Bilbo)	Bilboko Arte Sakratuaren Museoko bildumako jantzi liturgikoen katalogazioa EMSIME erabiliz.	9.784,15 €
Bizkaia	Bilboko Itsasadarra Itsas Museo Fundazioa	2019ko hezkuntza eta kultura hedapenerako programa.	27.594,44 €
Bizkaia	Bilboko Itsasadarra Itsas Museo Fundazioa	2019ko museoaren kudeaketa eta komunikazioa hobetzeko eta berritzeko plana.	29.493,96 €
Bizkaia	Berrizko Mesedetako Misiolariak (Vera Cruz komentua)	Margarita Maria Museoa: Museoko material didaktikoa diseinatu, egin eta martxan jartzea: Berriztik Mundura.	3.627,90 €
Bizkaia	Orozkoko Udala	Orozkoko Museoa: Guztiontzako ondarea.	3.322,54 €
Bizkaia	Sabino Arana Fundazioa	Euskal Nazionalismoaren Museoa: Lehendakari Zaharraren etxera itzultzea.	26.704,38 €
Gipuzkoa	Albaola Elkarte	Museo-faktoriaren kudeaketa hobetzeko eta berrikuntza bultzatzeko proiektua.	27.451,63 €
Gipuzkoa	Albaola Elkarte	Jardura didaktikoak eta kultura hedatzeko jarduerak diseinatu, ekoitzi eta eskaintzea.	27.948,13 €
Gipuzkoa	Bergarako Udala	Laboratorium Museoa: 2019. urteko aldi baterako erakusketa programa eta erakusketa iraunkorren hobekuntza	28.743,20 €
Gipuzkoa	Bergarako Udala	Laboratorium Museoa: 2019. urteko jardura didaktikoen eta kultura zabaltzekoaren programa	32.398,73 €
Gipuzkoa	Eibarko Udala	Armagintzaren Museoa: Eibarko industria ondarea zabaltzeko plana 2019.	12.913,60 €
Gipuzkoa	Eibarko Udala	Armagintzaren Museoa: museoko funtsen erregistroa, katalogazioa eta digitalizazioa XI. fasea, 2019. urtea.	3.097,72 €
Gipuzkoa	Eskoriatzako Udala	Ibarrarundi Museoa: "Atxorrotx: iraganeko memoria" eta "Eskoriatzako Udaletxeak" erakusketak	1.649,18 €

Gipuzkoa	Irungo Udala	Oiasso Museoa: Guztiontzako Arkeologia.	20.910,44 €
Gipuzkoa	Irungo Udala	Oiasso Museoa: Minerva-Indiana Jones foroa	7.803,26 €
Gipuzkoa	Itsas-Gela Elkartea	2019ko hezkuntza- eta kultura-programa	28.132,58 €
Gipuzkoa	Itsas-Gela Elkartea	Komunikazio plana martxan jartzeko egiturazko eta kanpoko komunikazio-ekintzak garatzea.	17.733,97 €
Gipuzkoa	Tolosako Ekinbide Etxea (TEE)	TOPIC-Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa: TOPIC 2019, funtsen katalogazioa eta dokumentazioa	14.063,27 €
Gipuzkoa	Tolosako Ekinbide Etxea (TEE)	TOPIC-Tolosako Nazioarteko Txotxongilo z Zentroa: TOPIC 2019-Aldi baterako erakusketen eta bilduma iraunkorraren hobekuntza	20.560,86 €
Gipuzkoa	Erreminta Makinaren Museo Fundazioa	Museoko funtsen dokumentazioa eta katalogazioa	9.351,15 €
Gipuzkoa	Erreminta Makinaren Museo Fundazioa	Erakusketa finkoa berritzea eta aldi baterako erakusketak egitea	4.218,61 €
Gipuzkoa	Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa	Donostiako Aquariuma: Bildumen katalogoa on-line argitaratzea, 2019.	2.783,59 €
Gipuzkoa	Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa	Donostiako Aquariuma: Erakusketa iraunkorreko zenbait gune hobetzea eta aldi baterako erakusketak egitea, 2019.	31.279,21 €
Gipuzkoa	Photomuseum Argazki Euskal Museoa Fundazioa	Unitate didaktikoa on-line: Bidaia harrigarria kamera ilunetik argazki digitalera.	15.353,89 €
Gipuzkoa	Lenbur Fundazioa	Lenbur Lurralde Museoa: Euskal Herriko lantegiak herriz herri proiektua. 1. fasea	25.183,54 €
Gipuzkoa	Lenbur Fundazioa	Lenbur Lurralde Museoa: Fabrika museografia 2. fasea	27.626,22 €
Gipuzkoa	Luberrri Oartzungo Ikasgune Geologikoa Fundazioa	Erakusketa iraunkorreko sarreraren berritzea	3.216,09 €
Gipuzkoa	Luberrri Oartzungo Ikasgune Geologikoa Fundazioa	Mineralaren propietateen txokoa	191,33 €
Gipuzkoa	Sagardun Partzuergoa	Sagardoetxea, Sagardoaren Museoa: Sagardoetxeako erakusketa finkoa berritzea	10.802,66 €
Gipuzkoa	Sagardun Partzuergoa	Sagardoetxea, Sagardoaren Museoa: Sagarra eta sagardoaren kultura nazioartean ezagutzera ematea	5.442,06 €
Gipuzkoa	Socieda Financiera y Minera SA	Museum Cemento Rezola: 2019ko aldi baterako erakusketa: "Arku gaintzen. Modernitateko zubiak"	10.257,79 €
Gipuzkoa	Socieda Financiera y Minera SA	Museum Cemento Rezola: Ondare bizia 2019	30.352,93 €
Gipuzkoa	Soinuenea Fundazioa	Soinu tresnen eta Landa Lanean (HM Kontzertuak) bildutako funtsen katalogazioa	14.322,47 €
Gipuzkoa	Soinuenea Fundazioa	Jarduera kulturalak: didaktikoez eta hauei lotutako publikazioak	20.798,07 €
GUZTIRA:			700.000 €

6.1.1.2. Ondarea

Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2019-2021 aldirako diru-laguntzatarako deialdia

Deialdia

4431. 2019-09-30, EHAA 185. zk

Agindua, 2019ko irailaren 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2019-2021 aldirako diru-laguntzatarako deialdia egiten duena.



Xedea

Agindu honen xedea da, batetik, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzatarako deialdia egitea, eta, bestetik, diru-laguntza horiek emateko araubidea finkatzea. Agindu honen helburutik kanpo geratzen dira Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeko 3.3.a) artikuluan jasotako jarduketa oro; izan ere, lurralde historikoetako foru aldundien eskumenekoak dira. 2019tik 2021era bitartean burutu beharko dira diruz laguntzen diren proiektuak.

Jarduerak

Diruz lagundu direnak dira:

- Aitortuak edo aitortuak izateko espedientea irekita duten babes bereziko edo ertaineko kultura-ondareen kasuan, honakoak:
 - Babestutako multzoa balioan jartzeko oztopo diren elementuak eta zatiak, baita eraikuntza edo eraikin osoak ere, deuseztatzea, eraistea edo kentzea.
 - Alde zaharretan dauden jabetzen lotekako banaketari eustea.
 - Eraikinak berrerrabiltzeko beharrezko diren instalazio orokorrak, obra-zuzendaritzak eta proiektu teknikoak.
 - Aztarnategi arkeologikoetan garrantzizkoak diren egiturak sendotzea.
 - Orubearen edo egituren aurretiko azterlanak (arkeologikoak, dokumentalak, eta abar), ondasunean esku hartzeko proiektuaren parte gisa geldituko direnak.

- Aitortuak edo aitortuak izateko espedientea hasita duten landa- edo industria-izaerako babes bereziko edo ertaineko kultura-ondasunen kasuan, ondareari balioa eman eta hura berrerrabiltzeko helburua duten honako jarduerak:

- Proiektu teknikoak eta obra-zuzendaritza
- Erabilera berrira egokitzeko barneko esku-hartzeak eta beharrezkoak diren instalazioak.
- Aitortuak edo aitortuak izateko espedientea hasita duten babes bereziko edo ertaineko kultura-ondasunen garrantzia nabarmentzea helburu duten jarduerak, bereziki exekutatzeko premia adierazten duen azterketa oinarri dutenak eta baita kultur ondasunak babesteko premia gizarteratzeko helburua dutenak.
- Babes berezi edo ertaineko kultura ondasun higiezinak edo haien ingurunea desjabetzeko finantzaketa, helburua ondasun kulturalari edo haren parte garrantzizko bati balioa ematea denean. Ondare arkeologikoa nahiz eraikia izan daiteke.
- Euskal Kultura Ondarearen EAeko Erregistroan sartutako ondasunak edo babestuak izateko espedientea irekia dutenak zaindu, aberastu, babestu eta sustatzeko beste edozein jarduera.

Diru kopurua

2.100.000 €

700.000 € 2019. urteko ordainketa-kredituei dagozkien, 700.000 € 2020. urteko konpromiso-kredituei eta 700.000 euro 2021. urteko konpromiso-kredituei.

Batzorde erabakitzailea

Batzordeburua:

Mikel Aizpuru Murua

(Kultura Ondarearen zuzendaria)

Batzordekideak:

Dona Gil Abad

(Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren arduraduna)

Goretti Fariñas Egaña

(Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria)

Idazkaria:

Armando Llamosas Rubio

(Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria)

Ebazpena

234. 2020-01-20, EHAA 12. zk



Onuradunak

Lurraldea	Onuraduna	Proiektua	Diru-laguntzaren kopurua
Araba	Laudioko Udala	Laudioko Ermualde multzoko monumentu-eta historia-ondarea ikertzea eta zabaltzea.	39.120,00 €
Araba	Zambranako Udala	Portillako Monumentu Multzoa balioan jarri eta hura zabaltzea.	139.810,00 €
Gipuzkoa	San Martzial Guduaren V. Mendeurrena Fundazioa	"1552ko bideetatik": Gazteular gaztelua eta haren ondare material eta ez-materiala balioan jartzea.	32.012,00 €
Gipuzkoa	Iñigo Yrizar Velasco	Zubieta Dorrea balioan jartzea (Irizar Jauregia).	53.420,00 €
Gipuzkoa	Lezoko Udala	Jaizkibelgo II.dorrearen egonkortzea, berrerabiltzea, gizarteratzea eta balioan jartzea.	173.823,00 €
Gipuzkoa	Aranzadi Zientzia Elkarteak	Donostiako Ulia Parkean dauden Sorobordako eta Buskandoko Ur-Biltegiak osatzen duten Monumentu Multzoan gauzatu beharreko zaharberritze eta berrerabiltze lanak zehazten dituen proiektua.	148.443,00 €
Gipuzkoa	Leintz-Gatzagako Udala	Leintz Gatzagako ondare babes dokumentu guztiak (dekretuak, aginduak, etab.) Elkar lotuko dituen plan zuzentzailea.	29.955,00 €
Gipuzkoa	Zeraingo Udala	Aizpeako meategietako kiskalketa labeak zaharberritzea.	189.740,00 €
Gipuzkoa	Arrasateko Udala	Kulturola eraikina zaharberritzea.	200.000,00 €
Gipuzkoa	Anoetako Udala	Basagain Burdin Aroko herrixkaren perimetroa balioan jartzea.	10.171,00 €
Gipuzkoa	Mutiloako Udala	Mutiloako Errotatxo eraikina balioan jarri eta erabilera berriak aurkitzea, bisitarien harreragune eta erabilera anitzeko espazio bihurtzeko.	96.301,00 €
Gipuzkoa	Abar Kultur Elkarteak	Landarbasoko multzo megalitikoa balioan jarri eta zabaltzea, Igoi-Alkolako (Gipuzkoa) estazio megalitikoko monumentu-multzoan.	63.403,00 €
Bizkaia	Zallako Udala	San Pedro ermita hobetzeko jarduerak.	18.850,00 €
Bizkaia	Getxoko Udala	Punta Begoñako galerien aretoa balioan jartzea. Getxo.	169.002,00 €
Bizkaia	Balmasedako Udala	Gazteluko muinoai balioan jarri eta zabaltzea.	80.470,00 €
Bizkaia	Alberto Palacio García	Valdibiango Ferromolineru ondare multzoa balioan jartzea. Galdames.	90.312,00 €
Bizkaia	Sopuertako Udala	Olabarrietako burdinola-fanderiari ondare multzoa balioan jartzea.	105.480,00 €
Bizkaia	Urdulizeko Udala	Urdulizko Santa Marina inguruko Burdinazko Gerrikoa balioan jarri eta gizartea sentsibilizatzea.	34.833,00 €
Bizkaia	Bermeoko Udala	Bermeoko Hirigune Historikoaren inguru degradatuen berreskuratze programa. Berrisu Plana. Intxausti, 15.	22.374,00 €
GUZTIRA:			1.697.519 €

Itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko 2019ko ekitaldiko diru-laguntzen deialdia

Deialdia

4432. 2019-09-30, EHAA 185. zk

Agindua, 2019ko irailaren 17koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko 2019ko ekitaldiko diru-laguntzan oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena.



Xedea

Agindu honen helburua da diru-laguntzak emateko deialdi bat egitea, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko itsas kultura-ondarearen ondasun higikor, higiezin eta immaterialak babesteko jarduerak sustatzeko, aintzat hartuta haien balio historikoa, etnografikoa, arkeologikoa edo soziala; agindu honen bidez, orobat, diru-laguntza horiek emateko araubidea ezartzen da.

Jarduerak

Itsas ondarearen arloan kultura balioa duten elementuak sustatzeko, sendotzeko, konpontzeko eta egokitzeko diru-laguntzak emango dira, honako 5 lerroetan banatuta:

1. lerroa

Egurrezko ontzien inguruan, musealizazioa helburu hartuta: berritze aurreko azterlanak; segurtasunerako eta sarbideetarako obrak edo elementuak; ontziarekin lotura ez izan arren, berau ulertzeko beharrezko diren informazio-euskarriak eta erakusgarri jartzeko ontzian egin beharreko lanak.

2. lerroa

Egurrezko ontziak jendeari zerbitzua emateko prestatzeko egitekoak: segurtasun- eta nabigazio-ekipamendua eta nabigaziorako ahalbidetzeko egitura-lanak.

3. lerroa

Lehorreko instalazioen (ontziolak, lonjak, ontziralekuak...) garrantzia nabarmentzeko egin beharrekoak: aurretiazko azterlanak, instalazio horiek baliozko balio ez duten elementu eta atalak kentzea; eraikinak erabiltzeko moduan jartzea; proiektu teknikoak eta musealizazioari dagozkion informazio-euskarriak.

4. lerroa

Askotariko zenbait gastu: ontziak konpontzeko eta egokitzeko, lizentziak izapidetzeko, euskal portuetan modu egonkorrean atrakatzeko eta nabigaziorako baimenak.

5. lerroa

Elkarte edo erakunde publiko zein pribatuek egurrezko itsas kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzeko antolatutako ekitaldiak: ontzien kontzentrazioak, erakusketak, hitzaldiak, jarduera didaktikoak, argitalpenak...

Diru kopurua

200.000 €

Batzorde erabakitzailea

Batzordeburua:

Mikel Aizpuru Murua

(Kultura Ondarearen zuzendaria)

Batzordekideak:

Dona Gil Abad

(Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren arduraduna)

Itsas kultur-ondarearen arloan adituak:

Xabier Alberdi Lonbide

Juan Antonio Apraiz Zallo

Idazkaria:

Armando Llamosas Rubio

(Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria)

Ebazpena

5784. 2019-12-18, EHAA 240. zk



Onuradunak

Lurraldea	Onuraduna	Jarduera	Diru-laguntzaren kopurua
1. LERROA			
Gipuzkoa	Albaola Elkartea	Batelen erakusketa / Mesker batela 1. proiektua	2.161,00 €
Gipuzkoa	Albaola Elkartea	1. lerroa, 2. proiektua Maribeltz batela	2.031,00 €
Gipuzkoa	Albaola Elkartea	1. lerroa 3. proiektua Butus	780,00 €
Bizkaia	Bilboko Itsasadarra Itsas Museo Fundazioa	Antxustegi Berria arrantza-ontzia balioan jartzea	17.598,50 €
Bizkaia	Santurtziko Udala	Agurtza arrantza-ontzia - 1. fasea	24.193,95 €
Guztira:			46.764,45 €
2. LERROA			
Gipuzkoa	Albaola Elkartea	2. lerroa 1. proiektua Ozentziyo azkeneko atunketaria	8.820,00 €
Gipuzkoa	Albaola Elkartea	2. lerroa 2. proiektua Ameriketatik euskal trainerua	2.400,00 €
Gipuzkoa	Albaola Elkartea	2. lerroa 3. proiektua Lafayette	1.650,00 €
Gipuzkoa	Amuaitz Lertxundi Villanueva eta beste bat CB	Ostarte sailing. Lucretia	4.613,62 €
Gipuzkoa	Amuaitz Lertxundi Villanueva eta beste bat CB	Ostarte sailing. Tanit	3.530,29 €
Gipuzkoa	Itsas-Gela Elkartea	Mater Itsas Ondare Bizia. Prest jartzea 2019.	13.460,08 €
Bizkaia	Atyla Fundazioa	Atyla itsasontziaren musealizazioa	5.348,55 €
Guztira:			39.822,54 €
3. LERROA			
Bizkaia	Lekeitioko Udala	Mendieta ontziola zaharberritzea. 2019ko jarduera-programa	20.650,09 €
Guztira:			20.650,09 €
4. LERROA			
Araba	Antia Vinos, Iñigo	Kresala-2019ko jardueren memoria	607,23 €
Gipuzkoa	Albaola Elkartea	4. lerroa 1. proiektua Ozentziyoren atrakatzea	2.000,00 €
Gipuzkoa	Albaola Elkartea	4. lerroa 3. proiektua Ameriketatik legalizazioa	1.900,00 €
Gipuzkoa	Albaola Elkartea	4. lerroa 3. proiektua Mesker legalizazioa	1.900,00 €
Gipuzkoa	Lorea Dental, S.L.	Txipiroi-ontzi baten birgaitze integrala	2.727,35 €
Gipuzkoa	Oarsoaldea SA	Zabarre ontzia legezatzeko proiektua	1.149,00 €
Gipuzkoa	Oarsoaldea SA	Gastibeltza ontzia legezatzeko proiektua	1.150,00 €
Gipuzkoa	Oarsoaldea SA	Arditurri ontzia legezatzeko proiektua	1.150,00 €
Gipuzkoa	Pérez de Arriba Díaz de Argandoña, Jose Luis	Andrea ontzi tradizionala konpontzea (txipiroi-ontzia)	2.270,52 €
Guztira:			14.854,10 €
5. LERROA			
Gipuzkoa	Albaola elkartea	5. lerroa 1. proiektua ontzi tradizionalen aldi baterako erakusketa ibiltaria	3.000,00 €
Gipuzkoa	Arma plaza fundazioa	Hondarribiko arrantzaren memoria zabaltzea ahozko testigantzen bitartez. 2019	3.000,00 €
Gipuzkoa	Beduaola Untziola Elkartea	Hiru Anai batelaren berreskurapena	3.000,00 €
Bizkaia	Bilboko Itsasadarra Itsas Museo Fundazioa	Antxustegi Berria arrantza-ontzia balioan jartzea	45,00 €
Guztira:			9.045,00 €
GUZTIRA:			131.136,18 €

Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2019-2021 aldirako diru-laguntzatarako deialdia

Deialdia

4246. 2019-09-18, EHAA 177. zk

Agindua, 2019ko irailaren 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2019-2021 aldirako diru-laguntzatarako deialdia egiten duena.



Xedea

Deialdi honen xedea da euskal kultura ondarearen babesaren arloa bideratutako ikerketa proiektuak diruz laguntzea, ondare materiala –higiezina eta higigarria– nahiz immateriala barnean direla.

Jarduerak

Euskal Autonomia Erkidegoko kultura ondarea hobeto ezagutzen laguntzen duten eta babesteko irizpide oinarriak zehazten eta tresna erabilgarriak egiten laguntzen duten proiektuak lagundu ahal izango dira diruz. Iturri dokumental, bibliografiko, arkeologiko, toponimiko, grafiko, ikusizkoak izango dituzte oinarri, bai eta ahozko transmisioak ere; laborategi edo profesional espezializatuen analitika-lanak ondarea ikertzeko osagarri badira.

Diru kopurua

160.000 €

Batzorde erabakitzailea

Batzordeburua:

Mikel Aizpuru Murua jauna
(Kultura Ondarearen zuzendaria)

Batzordekideak:

Dona Gil Abad
(Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren arduraduna)

Armando Llamosas Rubio
(Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria)

Kultura ondarean aditua:

Andoni Sáenz de Buruaga Blázquez

Idazkaria:

María Teresa Izquierdo Marculeta
(Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria)

Ebazpena

234. 2020-01-20, EHAA 12. zk



Onuradunak

Lurraldea	Onuraduna	Proiektua	Diru-laguntzaren kopurua
Araba	Escribano Ruiz, Sergio	Gerra Karlistako gudu zelaiak. Identifikazioa, ezaugarritzea eta azterketa	12.500,00 €
Araba	García Gómez, Ismael	Gasteizko San Vicente. Euskadiko historian erabateko garrantzia duen gaztelu baten arkitekturaren arkeologia	13.500,00 €
